

HEZKUNTZA ESPARRUA ETA EUSKALDUNTZEA EAEn (1983-2016)

Euskararen Erabilera Normaltzeko Legea eta 138/1983 Dekretua onartu
ondorengo bilakaera eta beren eragina gazteen euskalduntzean

BEZEROA: Euskal Herrian Euskaraz



Euskal Herrian Euskaraz

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
2.	ABIAPUNTUA ETA TESTUINGURUA	4
2.1.	EUSKARAREN EGOERA SOZIOLOGIKOA	5
2.1.1.	Euskara-erdarak gizarte esparru ezberdinetan, 1975 inguruan	5
2.1.2.	Euskara-erdarek buruzko jarrerak	7
2.1.3.	EAEko hiztunen elebitasun-moldaera	9
2.2.	HEZKUNTZA EGOERA 1983/1984ra ARTE	11
3.	EREDUAREN BILAKAERA	13
3.1.	HAUR-JAIOTZAK ETA IKASLE-KOPURUAK	14
3.2.	EREDUEN BILAKAERA, ORO HAR	16
3.3.	EREDUEN BILAKAERA HAUR HEZKUNTZAN (HH)	20
3.4.	EREDUEN BILAKAERA LEHEN HEZKUNTZAN (LMH) ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN (DBH)	22
3.4.1.	Ereduen bilakaera Lehen Hezkuntzan	23
3.4.2.	Ereduen bilakaera Bigarren Hezkuntzan	24
3.5.	EREDUEN BILAKAERA BATXILERGOAN	26
3.6.	EREDUEN BILAKAERA LANBIDE HEZIKETAN	28
3.7.	EREDUEN BANAKETA HAUR HEZKUNTZAN, LEHEN HEZKUNTZAN, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAN	30
3.8.	IKASLE MIGRATUEN BANAKETA A HIZKUNTZA EREDUAN	32
4.	EUSKARA EZAGUTZA, BILAKAERA	35
4.1.	ZENTSUEN ARGITAN, ELEBIDUN PROPORTZIOAK	36
4.2.	INKESTA SOZIOLOGIKOEN ARABERA, ELEBIDUNAK ZIRENAK, BIHURTU DIRENAK ETA ERDALDUN ELEBAKAR MANTENTZEN DIRENAK	39
4.3.	EUSKARA EZAGUTZATIK HARATAGO, EUSKARA MAILA	43
4.3.1.	Ebaluazio Diagnostikoa: Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, 2. DBH	43
4.3.2.	Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4)	46
4.3.3.	Euskara gaitasun erlatiboa	50
4.4.	EUSKARA IKASLEAK EUSKALTEGIETAN	53
4.5.	ATZERRIKO HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA IKASKETA	56
4.5.1.	INGELESAREN EZAGUTZA	56
4.5.2.	INGELESEZKO ETA EUSKARAZKO C1 HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAN	59
5.	ONDORIOAK	62
6.	BIBLIOGRAFIA	64

1. SARRERA

Hurrengo orrietan aztertzen dugu, Euskal Herrian Euskaraz-en eskariz, Euskararen Erabilera Normaltzeko legea eta hori zehaztuz urtebete geroago, 1983ko uztailan, 138/1983 Dekretua onartu zirenetik hona zein izan den arautzen duten esparruaren bilakaera eta bi lege horiek nola eragin duten gazteen euskalduntzean.

Hori egiteko, lehenik legea eta dekretua onartu zeneko garaira jo dugu, abiapuntuko testuingurua zein zen aztertzeko. Ondoren, ordutik hona izan den bilakaera aztertu dugu, hainbat gairi dagokionez: matrikulazioa, euskara ezagutza eta abar. Azterketa hori guztia gauzatu ahal izateko, iturri oso ezberdinetara jo behar izan dugu eta, oin oharretan eta bibliografian ikusi ahal den bezala, jende askok egindako lana baliatu dugu. Aldi berean, gure proiektio propioak ere landu ditugu.

Ez da ariketa erraza izan. Txostenean zehar aurkeztutako datu asko ez dira %100 alderagarriak. Beste batzuk zaharrak dira eta egungo errealitatean aplikatzean disfuntzioak sor ditzakete. Edozein kasutan, ahalik eta zorrotzen saiatu gara eskuartean genituen datuak aztertzen, eta baita momentu bakoitzean egindako operazioa azaltzen ere, azaltzeko nola egin dugun eskatzen zitzaigun estimazio ahalik eta errealena. Uste dugu emaitza ona dela.

Azkenik, bildutako datu eta egindako estimazio horiek eztabaida sakontzen eta aurrera begira euskararen normalizazioan urratsak ematen lagun dezaten besterik ez genuke nahi.

2. ABIAPUNTUA ETA TESTUINGURUA

EAEn 1982an onartu zen Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legea, laburtzeko Euskararen Legea esaten zaiona askotan. Testu honetan, siglaz EEN legea (Euskararen Erabilera Normaltzeko legea) esango diogu. Urtebete geroago, 1983ko uztailean, EEN legea garatuz, 138/1983 Dekretua onartu zen eta, honen bidez, EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautu. Horrela, hezkuntza ez unibertsitariorako EAEko hizkuntza politika edo marko legala finkatua geratu zen gaur arte.

Lan honetan ikusi nahi da hizkuntza eta hezkuntza kontuak nola aldatu diren legea eta dekretua onartu zirenetik hona. Horretarako, oraingo egoera aztertu baino lehen, legea onartu aurretik egoera nolakoa zen jakitea beharrezkoa da, hau da, zein izan zen legea onartu zen uneko abiapuntua eta testuingurua. Modu horretan lortuko dugu ez bakarrik nondik gatozen jakitea, baizik eta lege horien garapenaz eta aplikazioaz zer lortu den eta zer ez bistaratzea ere. Beraz, eskola bidez lortutako emaitzak bere testuinguru naturalean kokatu ahal izateko, hasteko, gogoratu behar da zein egoera soziolinguistikotan zegoen 80ko hamarkadaren hasieran gizarte-bizitza osoa.

Hori guztia kontuan hartuta, darabiltzagun galdera nagusiak honakoak dira:

- Zer egoera soziolinguistikotan zeuden hizkuntzak bi legeak indarrean sartu aurretik?
- Zenbatek (eta nork) zekien euskaraz hitz egiten, eta zenbatek irakurtzen edo idazten?
- Nolakoak ziren hiritar batzuen eta besteen hizkuntzei buruzko iritziak eta jokabideak?
- Zer egoeratan zegoen hemengo hezkuntza-sistema, euskarazko irakaskuntza martxan jarri ahal izateko?

Galdera horiek erantzuteko, neurri handi batean Mikel Zalbidek 2007an egindako lana erabiliko dugu, "Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa" izenburuduna.

2.1. EUSKARAREN EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA

Euskararen 1975 inguruko egoera soziolinguistikoaren deskribapena hiru ataletan banatuko dugu: euskara-erdaren erabilera gizarte esparru ezberdinetan; EAEko herritarren euskara-erdarek buruzko iritzia eta jokabideak; azkenik, bertako hiztunen konfigurazio linguistikoa.

2.1.1. Euskara-erdarak gizarte esparru ezberdinetan, 1975 inguruan

1980. urte inguruan, zenbatek zekien euskaraz eta zenbatek gaztelaniaz? Galdera horri erantzuteko bi iturri dira nagusi: Siadecoren 1975eko datu-multzoa batetik (1975ean egindako inkestan oinarritu ziren nagusiki), eta 1981eko biztanle-zentsua bestetik. Lehenengoei Mikel Zalbidek egiten dizkie erreferentziak bere lanean eta hortik hartu ditugu guk datuak. Bigarren datuak, aldiz, publikoak dira. Ikusiko dugun bezala, datu batzuetatik besteetara aldea dago, eta ez txikia.

Emaita apalenak (eta sinesgarriagoak Zalbideren ustez) 1975eko inkestak ematen ditu: EAEko elebidunak (benetan euskaraz hitz egiten zekitenak) %25 ziren. Zalbidek horrela zioen ordura arteko euskara eta elebidunen bilakaeraz:

"Ahuldurik iritsia zen euskal hiztun-elkartea hogeigarren mendearen bigarren erdira: eremuz urritua eta espazio soziofuntzionalez aski mugatua. Etxean eta kalean, lanean eta jolasean euskaraz egiten zuten euskaldunak gero eta gutxiago ziren proportzioz. Gero eta lurralde-eremu txikiagoan bizi ziren, eta erdaldunekin gero eta nahastuago. Lehendik zetorren bideari eutsiz ahuldu egin zen euskal hiztun-elkartea, mende-hasieratik aurrera. Ahultze hori azeleratu egin zen, (...), 1955etik aurrera. 1975 inguruan eskualde jakinetara mugaturik iritsi zen (...). Urola bailara eta Tolosaldeko hainbat herri-herrixka, Goierriko alboherri gehienak eta Deba ibarraren hiruzpalau bazter-herri, Lea-Artibai eta Busturialde gehiena, Uribe-Butroeren ekialdea eta Arratia gehiena. Horiek ziren funtsean, 1970-80 epean, euskararen EAEko arnagune nagusiak. Lanbidez eta bizimoduz gizarte-molde zaharraren errainu ziren, (...). Urola aldeko Azpeitia eta bere gerri-buelta alde batera uzten bada, industriak sarbide handirik egin gabeko herri-herrixkek osatzen zuten nagusiki (...) beraietan zirauen baserri-bizitzak indartsuen. Demografiaz gero eta pisu meharragoa zuten (...). Arnagune horietatik kanpora ere bazen euskal giro jatorrik Bizkaiko eta, bereziki, Gipuzkoako beste hainbat udalerri: udalerri horietako bizigune berezietan, batez ere (...) Udalerrria bere osoan hartuta, ordea, gero eta nekezago kaleratzen zen halakoetan euskarazko jardun bizia." (Zalbide 2010;16)

Jarraian Zalbidek lurraldearen industrializazioa edo modernizazioa nola gertatu zen deskribatzen du eta horrek zer eragin izan zuen euskararen komunitatean. Labur esateko, kalea bere mende hartua zuen erdarak arnagune nagusietatik kanpo, eta euskal arnagune horiek ere mehetzen hasi ziren, baserritik kalera jaitsi beharrarengatik. Mugimendu horrez gain, Espainiako (batez ere Gaztela aldeko) etorkin-masa zabalak iritsi ziren Bizkaira (bigarren aldiz) eta Gipuzkoara 1950etik aurrera: ia 700.000 lagun. Ondoko taulan ikus daitekeenez, 1975eko udal eroldaren arabera EAEko biztanleen herena inguru espainiar estatutik etorria zen, hots, EAetik edo Nafarroatik kanpora jaioa. Horrela, bizitza urbanoa eta erdalduna zabalduz joan zen eta horrek ahuldu egin zituen euskarazko harreman-sare tradizionalak. Erdaldun elebakarrak nagusi ziren jardun-guneetan txertatu behar izan zuen, normalean, euskaldun-jendeak. Hala ere, herrialdeen artean aldeak izan ziren eta euskarari indartsuago eutsi zion Gipuzkoak.

TAULA: EAEKO BIZTANLEAK. KANPOAN JATIOAK. 1975EAN.

Lurraldea	Biztanleak	Euskal Herritik Kanpo jatioak	Kanpoan jatioak %
Araba	238.262	83.320	35,0
Bizkaia	1.152.394	410.943	35,7
Gipuzkoa	682.517	189.535	27,8
EAE	2.073.173	683.798	33,0

Iturria: EUSTAT, Biztanleen udal erroldaren estatistika, 1975

Beraz, 1900etik 1975 ingurura oro har, eta 1955etik 1975era artean bereziki, aukeratu beharra zegoen, gogo onez zein gogoz kontra. Halaxe egin zuen euskaldun-jendeak, eta euskara-erdaren aski konfigurazio soziokultural berezia eratu zen euskaldun-jendearen bizileku eta bizimodu berrian.

Migrazio mugimendu horrekin batera iritsi ziren hazkunde ekonomikoa, jaiotze tasa handiak eta hirigintza indartzea. Denbora gutxian, etxeak eta etxaldeak ez ezik, auzo osoak ere eraiki ziren. Zalbideren hitzak hartuz berriro, honela dio berak:

"Kale-giro modernizatu horretan, lantegietan eta auzo-bizitza arruntean egin zuten topo lehendikako kaletar erdaldunek, azken orduko etorkinek eta berrikitan kalera jaitsitako euskaldunek. Ingurumen horretan eratu eta zabaldu zen hizkuntza bien arteko modus vivendi berria, behinolako diglosia egonkorra gero eta alborago uzten ari zena. Tirabira horretan euskaldunek egin behar izan zuten, oro har, soziolinguistikazko egokitze-lan nagusia. Lehendik zetorren joera indartuz eta zabalduz, EAEko euskaldun gehienak (ia guztiak) elebidun bihurtu ziren une batetik aurrera. Erdaldun gehien-gehienak, aldiz, ez ziren euskaldundu: ez zuten beharrik izan." (Zalbide 2010;19)

Joera horiek hizkuntzen arteko funtzio banaketa berri bat sortu zuten. Euskarak ordura arte propioak izandako funtzio-esparruak gaztelaniak bereganatu zituen, zati batean edo oso-osorik. Hori dela-eta, modu eskusiboan bereak izango zituen jardun-gune eta funtzio-esparru nabarmenik gabe gelditu zen euskara, gehienetan, kale-giro berri horretan.

Laburbilduz: kasu batzuetan zati batean eta besteetan guztiz, lehendik aski ahuldua zetorren diglosia zaharra ahuldutik eta apurtutik joan zen XX. mendean zehar euskal hiztun-elkarte gehienetan. Ahuldu (hainbatetan ezabatu) egin ziren euskarak ordura arte bere-bereak izandako espazio soziofuntzional nagusiak: etxea eta familiartea, auzoa eta hurbileko lan-mundua, lagunartea eta aurrez aurreko gizarte-bizitza. Diglosiaren ahultze edo galera horren haritik zabalkunde ohargarria izan zuen erdarak. Gaztelaniaren *language spread* edo zabalkundea, mende hasieratik aski garaturik zegoena, ia erabatekoa bihurtu zen gerraondoa hasi eta 1980ra bitarteko lau hamarkadetan. Lehen ere bereak zituen goi-mailako funtzioetatik haratago (administratibotik, eskolatik, prentsatik eta, oro har, hizkuntza idatzian oinarrituriko jardun-gune eta harreman-sare formaletatik haratago), euskararenak izandako jardun-esparru eta harreman sare arrunt, barrenkoi-intimo eta informaletara zabaldu zen erdara, gero eta indartsuago.

Fenomeno horiek, ordea, ez ziren fenomeno sozial edo ekonomiko hutsak izan. Aginte-egitura osoak ahalegin berezia egin zuen 1937tik aurrera, modu orokorrean baina bereziki komunikabideen eta hezkuntzaren alorrean, euskaltasunari gizarte-molde berrirako garapen-aukerak mugatzeko, oztopatzeko eta, hainbatetan, zorrotz debekatzeko.

Dena dela, euskara ez zen desagertu. Joera eta politika horiei aurre egin zieten hainbat herritarrek, norbanako mailan eta modu antolatuan ere bai. Ohiko herri-herrixka eta baserrietako euskal giroa mantendu egin zen. Arnasgune horietatik kanpora ere bizirik jarraitzen zuen euskarak, haietan baino ahulduago egon arren. Hala gertatzen zen, hasteko, udalerri erdaldunduetako hainbat auzo eta baserrian, baita Donostian edo Bizkai-Gipuzkoetako hiri eta herriburu industrializatuen gerri-bueltako baserrietan eta zenbait auzotan ere. Horrez gain, 1955etik 1975era susperraldia iritsi zen hainbat euskaldun eta euskaltzaleren eskutik. Euskaldun kaletar horiek ikusi zuten ez zela aski euskararentzat ohikoak ez ziren esparru batzuetan "azken hondakinei" eustea. Hori dela-eta, zegoenari eusten saiatzeaz gain (lehen hizkuntzaren transmisioaren bidez) esparru berriak irabaztera jo zuten. Euskarazko harreman-sare berriak eratu ziren (ikastolak, helduen euskalduntze eta alfabetatzea...) eta urrats handiak egin zituzten euskara mundu modernora egokitze lanean (euskara batua adibide). Hizkuntza indarberritzeko saio urbano berriak ez zuen, bestalde, gerraurrekoarekin lotura zuzen handirik. Hain justu, oinarritzko edo hortik gorako eskola-maila baten jabe ziren herritarrek osatu zuten mugimendu hori. Pertsona horiek hizkuntza zaharra eta kultura modernoa uztartzen saiatu ziren.

2.1.2. Euskara-erdarek buruzko jarrerak

Euskal Herrian gertatu zen aldaketa sozial guzti horiekin batera, euskara-erdarek buruzko iritziak, jarrera nagusiak eta onarturiko jokabide multzo zehatz bat taxutu ziren. Horiek oso kontuan hartzekoak ziren eta hala izaten jarraitzen dute.

Zalbidek garaiko hiru diskurtso-ikuskerak nagusi deskribatzen ditu: "euskaltasun xaharkituaren kale-ikuspegi estereotipatua", "euskara arrisku-iturri" eta "euskaltasunaren defentsa esplizitua". Laburbilduta, hauek ziren hiru ikuspegien gakoak:

- 1.- "Euskaltasun xaharkituaren kale-ikuspegi estereotipatua". Urbanizazio-modernizaziorako joeraren baitan, euskaldun elebaker edo elebiduna baserri giroari lotua agertzen zen, gaztelaniaz moldatzeko zailtasunekin edota gaztelaniaz euskal azentuarekin hitz egiteko joerarekin. Estereotipo jakin bat osatua zegoen, beraz, Espainian euskaldun "leial baina gizagaixoa"z; eta estereotipo hori aski barneratua zeukaten bertako vasco-euskaldunek ere, ez beti, baina bai sarri. Erdarak mendean hartu gabeko euskaldun jatorra Pello Kirten, Chomin del Regato eta antzeko irudiekin lotzen zuen ikuspegi horrek. Euskararen (eta euskal kulturaren) estigmatizazioa eragiten zuen aipatutako asoziazioak ezinbestean. Zentzu horretan, vasco-euskaldunak ez zeuden euskararen kontra, baina beraien eguneroko jardunak gaztelania zuen ardatz.
- 2.- "Euskara arrisku-iturri". Espainiar nazio-estatuarentzat arrisku gisa bizi zuten ikuspegi hau zutenek. Kanpoko perspektibaz juzgatzen eta gaitzesten zuenik baten. Nazio-estatuaren batasun politikoa lortua zelarik, horren pareko batasun soziokulturala eskuratu ahal izateko eragozpen larria zen euskara hainbat norbanako eta instantziarentzat.

- 3.- "Euskaltasunaren defentsa esplizitua": 1955 inguruan hasi eta 1975era bitartean euskararen eta euskal kulturaren aldeko jarrerak azaleratuz eta hedatuz joan ziren euskal jendartearen. Diskurtso edo ikuspegi horren barruan, bi korrante antzematen ziren. Lehenengoaren arabera, euskara bizirik aterako bazen, Euskal Herritik kanpora erauzi beharra zegoen gatzelania. Arrisku bizian eta ezintasun nabarmenez inguraturik zegoen euskaltasun etnokultural osoa, hizkuntza barne. Bigarren ikuspegian, aldiz, ez ziren hizkuntza bakarraren aldekoak. Hiritar askok ez zuen euskararen defentsa erdararen galerarekin lotzen. Hizkuntza bietan, ez bakarrean, oinarritutako bizimodu berria nahi zuen euskaltzaleen beste multzo horrek.

Hiru diskurtso horiek ez ziren 1980ra indar berdinez iritsi. Are gehiago, lehen biak, datuen argitan, nahikoa ahul iritsi ziren. Araban, nagusi zen euskara ikasteko aukera edozeinek izan behar zuela zioen multzoa, baina beste erantzun guztiak kontuan hartuta gehiago ziren gutxienez euskara ulertzeko gaitasuna denek eduki beharko luketela irizten zutenak, bai Araban, baita Bizkaian eta Gipuzkoan ere.

TAULA: EUSKARAREKIN ZER EGITEA KOMENI DA? JENDEAREN ERANTZUNA

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
<i>Gal dadila pixkana-pixkana</i>	0,3	-	0,3
<i>Ezer ez: doala bere martxan</i>	3,7	2	0,8
<i>Euskaldunek behintzat euskaraz segi dezatela</i>	3,7	1,2	1,2
<i>Ikasi nahi duenak ikasi ahal izan dezala</i>	33,7	18,5	19,2
<i>Guztiok ulertu behar genuke euskara</i>	19,2	15,2	8,5
<i>Erdaraz bezain ondo jakin behar genuke</i>	23,5	27,7	25,7
<i>Euskaraz egin behar genuke guztiok, egunero</i>	15,7	35,2	44,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Gizarte Azterketarako Lantaldea, 1983: 163

Familien artean ere, transmisioari buruz galdetuta, euskara jakin ala ez, gehienek zioten guraso guztiek euskara transmititu behar luketela. Horrela uste zuten familia elebidunen %60,8k eta baita familia erdaldun elebakarren ia erdiak ere (%49,1ek).

TAULA: ZEIN IZANGO LITZATEKE FAMILIAREN JOKABIDE ZUZENA SEME-ALABEI EUSKARA ERAKUSTEKO KONTUAN?

	<i>Familia elebidunak</i>	<i>Familia erdaldun elebakarrak</i>
<i>Nahi duten gurasoek bakarrik (ikasarazi behar diete euskara seme-alabei)</i>	6,4	24,2
<i>Euskaraz dakiten gurasoek</i>	26,7	16,6
<i>Guraso guztiek, nahiz eta beraiek ez jakin</i>	60,8	49,1
<i>Zenbait erantzun</i>		3,2
<i>Erantzunik gabe</i>	6,1	6,9

Iturria: Hizkuntza borroka Euskal Herrian, 1979. SIADECO-EUSKALTZAINDIA

Eta hori lortzeko edo egiteko moduaz galdetuta, euskal eskolaren aldeko gogo-nahia indartsu zegoen. Euskararen transmisio eraginkorrerako laguntzak zein ote ziren galdetu zitzaionean jendeari, "eskola" izan zen, era batera edo bestera, familia elebidunen %86ren erantzuna (familia erdaldun elebakarren iritzien daturik ez dago kasu honetan).

TAULA: TRANSMISIO ERAGINKOR BATERAKO BEHARREZKO LAGUNTZAK

	<i>Familia elebidunak</i>
<i>Euskararen ikasketarako ahalbideak ugaltu (ikastolak, gaueskolak, etabar)</i>	46,7
<i>Euskararen irakaskuntza, irakaskuntza maila guztietan sartu</i>	39,3
<i>Euskal Herriko bazter guztietan ikastolak ezarri jende helduarentzat</i>	4,8
<i>Bata eta bestea (2 + 3)</i>	1,5
<i>Beste erantzunen bat</i>	0,1
<i>Erantzunik gabe</i>	7,6

Iturria: Hizkuntza borroka Euskal Herrian, 1979. SIADECO-EUSKALTZAINDIA


2.1.3. EAEko hiztunen elebitasun-moldaera

Ia guztiz galduak zituen Euskal Herriak, 1975 ingururako, euskaldun elebakarrak. Galtzeko arrisku bizioan zeuden hizkuntzetako bat zen, horrenbestez, euskara. Nekez aurki zitekeen ele bakarreko euskaldunik. Erdaldun elebakarrak, aldiz, asko ziren: gehiengo zabala (1981ko zentsuaren arabera %64). 1975eko inkestaren arabera %21,5 ziren euskaldun (1981eko zentsuaren arabera %24,1) eta horiek elebidunak ziren oro har. Elebidun horietako batzuk euskal-elebidunak ziren, hau da, euskaraz erosoago moldatzen ziren erdaraz baino. Beste zenbait hiztun, berriz, elebidun "orekatu"tzat har zitezkeen: parez pare moldatzen ziren horiek hizkuntza batean zein bestean, eguneroko jarduera arruntan. Eta beste batzuk, azkenik, erdal-elebidunak: bazekiten euskaraz, eta egin ere halaxe egiten zuten hartarako beharra edo komenentzia suertatzen zitzaientean, baina maizago eta errazago egiten zuten gaztelaniaz. Azken hauek ziren nagusi Bizkai-Gipuzkoetako hiri-giroan, erdaldun elebakarren ondoan noski. Hori zen EAEko hiztunen elebitasun-moldaera nagusia aztergai dugun 1970-80ko epealdi hartan.

TAULA: EUSKAL AEKO ELEBIDUNAK HERRIALDEKA, 1975 ETA 1981

	<i>Biztanleria</i>	<i>Elebidunak (Siadecoren 1975eko datuak)</i>	<i>Elebidunak (1981eko biztanle-zentsuaren datuak)</i>
Araba	238.262	18.863	7,9
Bizkaia	1.152.394	174.366	15,1
Gipuzkoa	682.517	307.279	45,0
EAE	2.073.173	500.508	24,1

Iturria: SIADECO-EUSKALTZAINDIA, 1979: *Hizkuntza borroka Euskal Herrian* eta EUSTAT, 1981: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

GRAFIKOA: EUSKAL AEKO BIZTANLERIA (>2 URTE) EUSKARA-MAILAREN ARABERA, 1981

Iturria: EUSTAT, 1981: Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak


2.2. HEZKUNTZA EGOERA 1983/1984ra ARTE

Gerraondoko eskolaren eta euskararen arteko harreman eta zerikusiak hiru epealditan bana daitezke: gerra amaitu eta lehenengo ikastoletaraino doana (1937-1960), ikastolaren garapen-urteak (1961-1975), eta euskara ofizialki irakas-sistema osora eraman nahi den hirugarren epealdia.

Lehen epealdiaren (1937-1960) erreferentzia nagusia Elbira Zipitria da. 1943an hasi zen Donostian, bere inguruan, ondorengo ikastolen sustraiak errotzen. Euskara eta pedagogia berritzailea, bi ardatz horiek oinarri hartuta oso irakaskuntza aurreratua erabili zuen. Ikastola haiek, legez, akademia itxura hartu zuten hasieran: etxebizitza arruntetan hamar-hamabi laguneko ikasle-taldeak biltzen ziren eta, horietan, haurren irakasle eta hezitzailea ez ezik, irakaslegaiaren irakaslea ere izan zen Zipitria. Berarekin ikasi eta lan egindakoek sortu zituzten gerora beste ikastaldeak eta ikastolak Donostian bertan, Gipuzkoako beste herri batzuetan edo Bilbon, esaterako.

Ikastolaren garapen-urteak (1961-1975). Urte horietan guztietan, ikastolek Erregimen Frankistaren aurka borrokatu bitartean lortzen dute beren hedapena. Honakoak izan ziren sortutako lehen Ikastola horiek: Gipuzkoan Orixe, Bizkaian R. M. Azkue eta Lauro, Nafarroan Uxue, Araban Olabide eta Iparraldeko Arrangoitzeko Ikastola. Hazkundera azkarra izan zen: 1960an 3 ikastola zeuden, 103 1970ean eta 243 1980an; ikasleak, berriz, 596 ziren 1964an, 11.885 1970ean, 33.851 1975ean eta 65.273 1980an¹.

GRAFIKOA: IKASTOLETAKO IKASLEEN BILAKAERA, 1964-82




Iturria: Basurco, Félix (1989): «La normalización de las ikastolas: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca eta SIADECO. Estudio Socio-lingüístico del euskera. VII: Las Ikastolas. 1980.

¹ Basurco, Félix (1989): «La normalización de las ikastolas: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca», Historia de la Educación. Revista Interuniversitaria, 8 zki, 139-165 or. eta SIADECO. Estudio Socio-lingüístico del euskera. VII: Las Ikastolas. 1980.

1975-76 ikasturterako, herrialdeka, elebidun kopuruaren eta mugimenduaren isla izan ziren bai ikastola kopuruaren zenbakiak eta baita matrikulazioarena ere. Gipuzkoan sortu ziren ikastola gehien eta egon zen ikasle gehien. Ikastola eta ikasle kopuruari dagokionez bigarren lurraldea Bizkaia zen, eta hirugarrena Nafarroa. Ipar Euskal Herrian Araban baino ikastola gehiago baziren ere, ikasle kopurua txikiagoa zen.


GRAFIKOA: IKASLE ETA IKASTOLA KOPURUA 1975-76 IKASTURTEAN, HERRIALDEKA



Iturria: Basurco, Félix (1989): «La normalización de las ikastolas: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca».


Horrela, hirugarren epealdia hasten denerako, sare guztiak kontuan hartuta, ikastoletan ikasleen %12,3 ari da hezten D ereduan, eta orotara, ikasleen %14 zeuden. Beraz, D eredua ikastoletatik haratago zabaldua zegoen, baina oso kopuru txikian artean.

Euskal AEko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak eta zentroaren titulartasuna 1983/84



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika.

Euskal AEko erregimen orokorreko unibertsitatekoak ez diren irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak eta hizkuntza eredua, 1983/84



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika.

3. EREDUAREN BILAKAERA

Horiek dira testuinguru soziala eta hezkuntzaren egitura Euskararen Legea (EEN) eta bere garapena, 1983ko 138/1983 Dekretua, ezartzen diren unean. Ordutik 34 urte pasa dira, eta orain saiatuko gara eskolaren eta hizkuntza-eredu horien eragina noraino iritsi den aztertzen, hainbat adierazleren arabera. Badakigu egungo errealitate soziolinguistikoa ez duela soilik eskolak azaltzen (ez onerako ez txarrerako), baina gutxienez euskararen ezagutza dela-eta, eskolari aitortu zaio eragile nagusietako bat izan dela. Goazen, beraz, adierazle batzuen eta besteen bilakaera aztertzea iturri ezberdinetako datuak erabiliz.

Legea betetzeko hartutako neurrien ondorioz gauzak nola aldatu diren aztertuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin, hiru hizkuntza-ereduen bilakaera ikusiko dugu: 34 urte hauetan zenbat ikaslek ikasi duen eredu batean edo bestean. Puntu horri dagokionez nabarmena da B eta, batez ere, D ereduak izan duten hazkundera. Hazkunde hori, ordea, jaiotza kopuruarekin erlatibizatu behar da.


3.1. HAUR-JAIOTZAK ETA IKASLE-KOPURUAK

1970etik hona, haur-jaiotzen bilakaera berezia izan du EAEk. Aldakuntza handiak gertatu dira alor horretan, eta aldakuntza horiek oso garrantzitsuak izan dira eskola-munduaren bilakaeran. Haur-jaiotzei dagokienez jaitsiera handia bizi izan du EAEk, oro har, 1978tik aurrera, ia hogeitaz urtez. Hori dela-eta, ikasle-kopuruak nabarmen jaitsi izan dira EAEko ikastetxeetan. Hurrengo irudian garbi ikusten denez:

- 1975-1977 tartean, aurreko urteetatik zetorren joera jarraituz jaiotza-kopuru handiak izan ziren EAEn: urtean 40.000 haur inguru.
- 1978tik 1995 ingurura arte, jaiotza-kopuruek etengabeko gainbehera izan zuten; unerik apalenean, 16.000tik behera ibili ziren jaiotza-kopuruak.
- 1996tik 2010 ingurura arte, jaitsiera hori gelditu gin zen eta indarberritze edo buru-jasotze apal bat gertatu zen urteotan.
- 2010etik hona, krisi finantzarioaren eta ekonomikoaren testuinguruan berriro ere apaltze bat gertatzen ari da.


Joera horiek, biztanleria-kopuruaren arabera ahulago edo indartsuago, baina antzekoak izan dira hiru herrialdeetan.

GRAFIKOA. EUSKAL AEKO BIZIRIK JAIOTZAK, LURRALDE EREMUA ETA ALDIA




Iturria: EUSTAT. Jaiotzen Estatistika

Joera horiek beste dinamika batzuetan eragina izan dute. Egungo piramide demografikoari erreparatzen badiogu, oso argi ikusten da, batetik, ez dela belaunaldien ordezkatzeari jazotzen ari eta, bestetik, migrazioei esker mantendu dela EAEko gizartea 2,1 milioi biztanleko kopuruaren inguruan.

GRAFIKOA. EUSKAL AEKO PIRAMIDE DEMOGRAFIKOA, 2017

Iturria: Eustat. Adierazle demografikoak. Biztanleen udal erroldaren estatistika. Biztanleria-proiekzioak

Gero eta haur gutxiago jaio izan denez denbora-tarte luzean, eragin zuzena izan du horrek EAEko eskoletan, bai eskola publikoetan eta bai pribatuetan. Hainbat urtez, ikasle-kopuruak murriztuz joan dira. Unibertsitatera arteko ikasmaila guztietan urterik urte ibili diren ikasle-kopuruak hurrengo irudian ikus daitezke. Funtsezko ondorioa nabarmena da: 1982-83tik 1997-98ra bitartean unibertsitate aurreko ikasleen kopurua %35 inguru gutxitu zen EAEn. Nahiz eta azken urteetan, 2000tik hona bereziki, ikastetxeek eutsi egin dioten matrikula-kopuruari eta, zenbaitetan, ikasle kopuruek gora egin duten zertxobait, ondorio nagusia oso argia da: gero eta ikasle gutxiagoko irakas-sistema izan da EAEkoa, oro har, aurreko mende bukaeran. Eragin sendoa izan du kontrakzio edo hertsitze horrek bestelako hainbat faktoretan. Baita eredu bilakaeran ere.

GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE KOPURUA 1983/2016


Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.2. EREDUEN BILAKAERA, ORO HAR

Legeak eta gainerako arauzko erabakiak pixkanaka finkatzen joan dira. Pausoz pauso gertatu dira aldaketak. Legeek beraiek aldaketa garai baten beharra aldarrikatu zuten, eta trantsizio-bide etengabea jardun du oro har, urterik urte eta mailaz maila, EAEko irakas-sistema osoak. Bilakaera horren azalpena dator jarraian, oinarritzko zenbakien eta koadro-taula sintetikoaren bidez. Atal honetan biltzen dira unibertsitate aurreko ikasmaila guztiak², hiru lurraldeak eta bi ikastetxe motak (publiko eta pribatu), emaitza globalak azalduta. Aurrerago emango dira datu xeheagoak, irakasmaila, ikastetxe mota edo lurraldeka. Gatozen, beraz, ikuspegi global horretara lehenengo.

Ikasle-kopuruei dagokienez zer bilakaera izan dute A, B eta D ereduak, EAEko unibertsitate aurreko ikasmaila guztiak eta ikastetxe mota guztiak kontuan hartuta? Ondoko irudiek ematen dute bilakaera global horren berri.

GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1983/2016



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika


Ikasle guztien %78 A (eta "X") ereduaren zebilen 1982-83an EEN legea indarrean jarri zenean. Hurrengo bi urteetan X ereduaren zebiltzanak (legeak aintzat hartutako salbuespen-kasuetan bakarrik aplikatzen da) A eredura joan ziren, hortik bere hasierako hazkundea. Orain, handik 34 urtera, A ereduko ikasleak %18,6n dabilta eta X «eredua» desagertu egin da ia. Familien borondatezko hautuaren ondorioz, euskara transmititzeko eta zabaltzeko eredu ahulenek (ikasle erdaldun elebakarrak euskalduntzeko eta euskaldunak alfabetatzeko ahalmen mugatuena dutenak) atzera egin dute, eta eredu indartsuenek aurrera. A ereduak, beraz, atzeraka doa etengabe.

² Haur-hezkuntza, Lehen hezkuntza, Haurlehen hezkuntza berezia, Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH), DBHko Hezkuntza Berezia, Oinarritzko lanbide heziketa, Hezkuntza berezia zereginen ikaskuntza, Batxilergoa, Erdi mailako LH, Goimailako LH eta Helduen hezkuntza (HH) (Irakaskuntza arautua).

B ereduak pixkanaka aurrera egin zuen 80ko eta 90eko hamarkadetan, %21 ingururaino. XXI. mendeko lehen hamarkadan eutsi egin zion aurreko hamarkadan eskuratutako hedapen-mailari eta 2007/08 ikasturtetik hona, pixkanaka berriro ere, jaisten doa (%21,3tik %17,9ra).

D ereduak, azkenik, igoera nabarmena izan du urterik urte: azken urteotan bera da eredurik aukeratuena eta bere ezarpena zabalduz doa urtetik urtera.


GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE EHUNEKOAK HIZKUNTZA-EREDUEN ARABERA, 1983/2016



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Ondorioz, gaur egun banaketa parekatu da A eta B ereduaren artean, %20aren azpitik, eta D ereduak %60 gainditu du. X ereduak ia desagertu da.

GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA-EREDUEN ARABERA, 2015/16




Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Ereduak garapen-erritmo desberdinak izan dituzte irakasmaila eta eskola-sareka, baita lurralde bakoitzean ere, eta hori ez dute aurreko grafikoek azaltzen. Beraz, jo dezagun horiek aztertzeraz.


Herrialdeka, 1994/95 ikasturtetik hona D ereduaren garapenari erreparatuz gero, joera oso antzekoa izan da: ikasturtetik ikasturtera hazten joan da etengabe azken 20 urteetan. Portzentajeetan aldeak daude ordea. Esaterako, egun Araba Gipuzkoako orain hogeitaz portzentajea dago, nahiz eta epe horretan Arabako D ereduaren portzentajea hirukoiztu baino gehiago egin den. Bizkaia tartean kokatzen da: egun, %60ra iristear da.

GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE EHUNEKOAK D HIZKUNTZA EREDUAREN ETA HERRIALDEAREN ARABERA, 1994/2016




Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Ikastetxearen titulartasunari begira, 1994/95ean nahikoa hurbil zeuden biak. Ikastetxe publikoetan D ereduak lortzen zuen portzentajea %29,9koa zen, pribatuetan %25,6koa, hau da, lau puntuko aldea. 20 urte geroago, D ereduaren portzentajea handitu egin da bi sareetan, baina bien arteko aldea ere handitu da. Horrela, egun sare publikoan hiru laurdenak baino gehiago (%76,2) D ereduaren matrikulatuta dauden bitartean, sare pribatuan ez da erdira iristen (%48,4). Beraz, sare publikoarengatik apustua egiten dutenek modu argiagoan egiten dute apustu D ereduaren alde ere.

GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE EHUNEKOAK D HIZKUNTZA EREDUAN, TITULARTASUNAREN ARABERA, 1994/2016

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Sare eta hizkuntza-eredu guztiak kontuan hartuta, ikusitako datuek adierazten dute egun D ereduan eta sare publikoan matrikulatuta daudenak direla gehiengoa, ikasleen %40 osatzen baitute. Bigarren multzo nagusia (%22,8) sare pribatuko D ereduko ikasleak dira eta hirugarrena sare pribatuko B eredua, %15.

GRAFIKOA: ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZAK, IKASLE EHUNEKOAK HIZKUNTZA-EREDUEN ETA TITULARTASUNAREN ARABERA, 1994/2016


Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.3. EREDUEN BILAKAERA HAUR HEZKUNTZAN (HH)

Ikasmaila ezberdinak banatzen baditugu eta Haur Hezkuntzatik hasi -hau da, derrigorrezkoa ez den ikasketa-ziklotik-, 6 urtera arteko umeak kontuan hartzen ditugu. Aipatu behar den lehenengo datua honakoa da: orokorrean, 2000/01 ikasturtearen bueltan, ikasle kopuruak gora egin du, 53.000 ikasle izatetik ia bikoizteraino. Hezkuntza ziklo hau berrantolatu delako gertatu da hori: 0-3 zikloa indartu delako, Haurreskola Patzuergoa sortu eta, ondorioz, Haur Hezkuntzako lehen zikloa (0-3 urte) berrantolatu eta kontuan hartu.


Era berean, aipatutako berrantolaketaekin paraleloan joan da Haur Hezkuntzan D ereduak izan duen gorakada. Esan beharra dago Haurreskola Patzuergoan hizkuntza eredu bakarra eskaintzen dela praktikan, D eredu hain justu, eta bertan zeuden matrikulatuta 0-2 urte arteko umeen %52,9 (6.102) 2015/16 ikasturtean.

GRAFIKOA: HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1983/2016



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Baina gorakada hori ez du soilik ziklo berrantolaketak azaltzen. Ehunekoetan ere D ereduaren aldeko apustua argia da, ia %80 bertan baitaude, eta aldea txikia da Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloaren artean (2015/16 ikasturtean lehen zikloan, 0-3 urte, %79,6 zeuden D eredu, eta bigarren zikloan, 3-6 urte, %77,1).


GRAFIKOA: HAUR HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKO HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1983/2016**Iturria:** EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.4. EREDUEN BILAKAERA LEHEN HEZKUNTZAN (LMH) ETA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN (DBH)


Datu-serieari erreparatuta, hemen ere ikusten da bilakaera demografikoaren ondorioz ikasle kopuru jaitsiera konstante bat dagoela, eta horren ondoren, bat-batean bi urtez igoera esanguratsua. Honengatik gertatzen da: 1996/97 ikasturtean Derrigorrezko Hezkuntza berrantolatu eta zabaldu egiten da 16 urtera arte. Horrela, ordura arte Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) zena eta 14 urtera arte iristen zena, beste bi urtez luzatu eta bi tartetan banatu zen: Lehen Hezkuntza, 6 eta 12 urte artekoa eta Bigarren Hezkuntza, 12 eta 16 urte artekoa.

Bi ziklo horiek kontuan hartuta ere eta 1983/84 ikasturtetik aurrera, D ereduaren aldeko hautua geroz eta indartsuago ikusten da. Lehen 10-15 urteetan A ereduaren jaitsiera nabarmena da, B eta D ereduek igoera txikiak dituzten bitartean. Ikasle kopuru jaitsiera nabarmenak, beraz, ez du eraginik B eta D ereduetan. Ehunekoetan irakurrita, argiago ikusten da hasieran B eta D ereduaren aldeko hautua eta, ondoren, D ereduaren aldekoa. Egun, D eredia %68,9k hautatu dute, B eredia jaisten ari da azken urteetan eta %23,9an dago eta A eredia, etengabeko jaitsieran, %6,5ean dago.

GRAFIKOA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1983/2016




Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

GRAFIKOA: LEHEN ETA BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1983/2016


Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.4.1. Ereduen bilakaera Lehen Hezkuntzan

Derrigorrezko irakaskuntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzan banatzen badugu, zikloetan gora egin ahala D ereduko kopuruak eta portzentajeak txikiagoak dira, baina nagusi izaten jarraitzen dute eta joera berdina mantentzen da: D eredia gora, A eredia behera eta B eredia, igoera izan ondotik, azken urteetan behera.

GRAFIKOA: LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1996/2016


Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

GRAFIKOA: LEHEN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1996/2016


Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.4.2. Ereduen bilakaera Bigarren Hezkuntzan

Bigarren Hezkuntzan, lehen esan bezala, ikasle kopurua oro har handitu egiten da 1996/98 ikasturteetan, bi ikasturte gehiago hartzen baititu. Hala ere, luzera, ikasle kopuruak berriro behera egiten du jaitsiera demografikoaren ondorioz. Dena dela, horrek ia ez du eraginik D ereduko matrikula kopuruetan eta joeran: etengabe hazten jarraitzen du. B ereduak matrikula kopuruak mantentzen ditu eta portzentajea handitu eta A ereduak bietan behera egiten du, ehunekoetan %9,4ra arte.

GRAFIKOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1996/2016

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika


GRAFIKOA: BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKO HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1996/2016**Iturria:** EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.5. EREDUEN BILAKAERA BATXILERGOAN

Ikasmaila honen berezitasuna zera da, Batxilergoan bi eredu daudela legez (A eta D). Praktikan badago, halere, B ereduaren parekotzat har litekeen "A indartua". Euskararen presentzia ahul samarra da normalean (baina ez beti) "A indartu" horretan: gutxitan iristen da B eredu estandarren %50era.


1994ko hezkuntza erreformatik aurrera Batxilergoko ikasleak 42.202ra iristen dira eta hortik aurrera beherantz doaz. Horrek ez dio eragiten D ereduari, pixkanaka gora doanari 2000/01-2004/05 ikasturteen artean jaitsiera txikiak izan bazituen ere. Horrela, ehunekoetan 1998ko datuei buelta eman zaie, eta egun %61,1 da Batxilergoa D eredu egiten ari den ikasleen proportzioa, gainontzekoak A eredu egiten dauden bitartean.

GRAFIKOA: BATXILERGOKO IRAKASKUNTZA, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1994/2016



Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

GRAFIKOA: BATXILERGOKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1998/2016




Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Titulartasunaren arabera, ordea, alde handiak daude. Proportzio nagusia, %38, D ereduak eta publikoak hartzen du. Baina, horren ondotik, azken ikasturtean ehuneko berdina izan dute D eta A ereduak pribatuan, %23,1. Hau da, sektore publikoan D ereduak nagusi da, ez horrela pribatuan.

Bilakaera ere ezberdina izan da. Publikoan A ereduaren jaitsiera nabarmen handiagoa izan da pribatuan baino, non Atik Drako transferentzia mantsoagoa izaten ari den.

GRAFIKOA: BATXILERGOKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ETA TITULARTASUNAREN ARABERA, 1997/2016




Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.6. EREDUEN BILAKAERA LANBIDE HEZIKETAN


Lanbide Heziketan ere bi eredu daude nagusiki, baina eredu horien izaeraz ohar batzuk eman behar dira kasu honetan. Hasteko, LHko A ereduak ez da gehienetan A ereduak, X ereduak edo antzeko zerbaitekin. Era berean, D ereduak ez da gehienetan D ereduak, erdal hizkuntza eta literatura ez baita ematen bertan. "A indartua" indarrean dago gainera LHn, neurri batean; B ereduaren parekotasunak eman ohi da, zenbaitetan, "A indartua"ko eredu hori.

Ohar horiek eginda, orain arte ikusi ditugun datu guztien kontrara, D ereduak egun ere ikasle kopuru eta portzentaje txikiak jasotzen duen ereduak da, A ereduaren mesedetan. Bilakaera ere bestelakoa da. 2000/01 ikasturtetik 2010/11ra D ereduak igoera txikiak izan zituen, ondoren egonkortu egin zen eta azken ikasturtean behera egin du. Guztira egungo portzentajea %22,6koa da, 8.536 ikasleekin. A ereduak berriz, ia 38.000 ikasle biltzen ditu, guztien hiru laurdenak (%75,1).

GRAFIKOA: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE KOPURUA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1994/1995




Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

GRAFIKOA: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 1994/2016

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

Titulartasunaren arabera, hemen ere aldeak daude. Bai publikoan eta bai pribatuan A eredu nagusi da, baina ez modu berdinean bietan. Horrela, egun publikoan A eredu %68,2 da eta D eredu %31,1. Pribatuan, berriz, %83,7 eta %12,1, hurrenez hurren.

Bilakaerak ere bestelakoak izan dituzte. Publikoan, pixkanaka D ereduaren presentzia handitzen joan den neurrian (hori bai oso portzentaje txikietatik abiatuta eta bereziki 1998/99 ikasturtetik aurrera), pribatuan A ereduak jaitsiera izan du, baina horrek ez du D ereduaren pareko igoera ekarri. Hau da, mugimendua pribatutik publikora eta A eredutik D eredura izan da.

GRAFIKOA: LANBIDE HEZIKETAKO IRAKASKUNTZA, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ETA TITULARTASUNAREN ARABERA, 1983/2016

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren estatistika

3.7. EREDUEN BANAKETA HAUR HEZKUNTZAN, LEHEN HEZKUNTZAN, DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN, BATXILERGOAN ETA LANBIDE HEZIKETAN


Ikasleak egun nola banatzen diren maila eta hizkuntza eredu bakoitzean ikus daiteke hurrengo taula eta grafikoan. Ikasmailetan gora egin ahala D ereduak presentzia galdu egiten du, orokorrean nagusi bada ere. Horrek, aurretik ikusitako bilakaera guztiak kontuan hartuta, adierazten du bilakaera horietan familiek denborarekin D ereduaren aldeko apustu handiagoa egin dutela, neurri handi batean. Hau da, kontua ez da maila igo ahala familiek edo ikasleek zalantza egiten dutela D ereduarekin eta, ondorioz, beste hizkuntza eredu batera pasatzen direla.

Irakurketa bestelakoa da Batxilergo eta Lanbide Heziketen kasuan. Kasu horietan sistema arazo bat dagoela esan daiteke. Aurreko ikasmailetan, esan dugun moduan, urrutirago iritsi da D eta B ereduaren ezarpena, eta eskema hori gorantz hedatuz doa urtetik urtera. Baina eskema horrek eskaintza arazo batekin egiten du topo nabarmen Batxilergoan eta bereziki Lanbide Heziketan. Aurretik B ereduaren daudenak Batxilergoan A eredura pasatzen direla atzematen da, A eta D ereduaren artean hautatu behar horretan. Lanbide Heziketan, ordea, ordura arte D ereduaren ikasi dutenek ere A eredura pasa behar izaten dute.

TAULA: IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAK, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 2015/16

	A eredu	B eredu	D eredu	X eredu
HH 0	2,3	19,7	78,0	0,0
HH 1	2,3	18,8	78,9	0,0
HH 2	2,5	17,1	80,1	0,2
HH 3	3,3	18,1	77,9	0,7
HH 4	3,4	19,1	76,8	0,7
HH 5	3,4	19,0	76,8	0,8
1. LMH	3,9	21,2	74,2	0,7
2. LMH	4,4	21,4	73,5	0,7
3. LMH	4,5	22,0	72,8	0,7
4. LMH	4,6	23,4	71,4	0,6
5. LMH	5,2	24,0	70,1	0,7
6. LMH	6,1	24,5	68,8	0,7
DBH	9,4	25,7	64,3	0,6
BATXILERGOA	35,7	2,5	61,1	0,7
LANBIDE HEZIKETA	75,1	2,3	22,6	0,0

Iturria: Hezkuntza-sistemari buruzko estatistikak. Hezkuntza Saila. 2016

GRAFIKOA: IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAK, IKASLE EHUNEKOA HIZKUNTZA EREDUEN ARABERA, 2015/16

Iturria: Hezkuntza-sistemari buruzko estatistikak. Hezkuntza Saila. 2016

IRUDIA: HIZKUNTZ EREDUAK EUSKAL HERRIAN 2013-14KO IKASTURTEKO DATUAK


Eskolako hizkuntza
ereduen mapa
herriz herri

- Murgitze eredu, %80tik gora
- Murgitze eredu, %50-80 artean
- Murgitze eredu, %50etik behera
- Elkarbizio eredu, euskaraz eta erdaraz
- Erdarazko eredu, euskaraz ikasgai dela
- Erdarazko eredu, euskaraz ikasgai ere ez dela
- Eskolarik ez / Mendiguneak

Hizkuntz ereduak Euskal Herrian

Herriz bakoitzeko ikastetxeetan nagusi den hizkuntz ereduak dago adierazita, haur hezkuntzatik lanbide heziketara

berria
2013-14ko ikasturteko datuak



Mapa: Joxean Apeztegia

Datuen lanketa: Garikoitz Goikoetxea. Herri bakoitzeko ikastetxeetan nagusi den hizkuntz ereduak dago adierazita, Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketara

Iturria: Berria gehigarri berezia "Hizkuntza ereduak" 2014ko urriaren 19a

3.8. IKASLE MIGRATUEN BANAKETA A HIZKUNTZA EREDUAN

Orain arte hizkuntza ereduen bilakaera aztertu dugu mailaz maila eta ikusi nola, orokorrean, D eredua hazten joan den nagusi bilakatu arte, A eredua desagertzen zihoan heinean. Orain Estatutik kanpo jaiotako ikasleetan jarriko dugu fokoa. Hainbatetan haiek hezkuntza sisteman modu segregatuan banatuta daudela eta A eredura bideratzen direla edo dituztela esan da. Ikus dezagun bada, Eskola-jardueraren estatistikaren argitan, zertan den gaia.

Oro har, Estatutik kanpo jaiotako ikasleak %7 dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Ikasmaila ezberdinetan, nahiko berdintsu banatzen dira, oinarritzko lanbide heziketan ezezik, non haien presentzia dagokiena baino nabarmen altuagoa den (%28,5). Publiko eta pribatuaren artean, aipatutako ikasketetan kenduta, beste guztietan ikasle gehiago jasotzen ditu publikoak pribatuak baino. Diferentzia handienak lehen ikasmailetan ematen dira (haur eta lehen hezkuntzan). Haur hezkuntza publikoan %5,7 dira eta pribatuan %1,3. Lehen hezkuntzan %5 eta %1,6 dira hurrenez hurren.

TAULA: IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAK, IKASLEAK ETA ESTATUTIK KANPO JAIOTAKO IKASLEAK MAILAREN ARABERA, 2015/16

	Ikasleak guztira	Estatutik kanpo jaiotako ikasleak		Publikoa	Pribatua
		kop.	%	%	%
Haur-hezkuntza	93.318	6.545	7,0	5,7	1,3
Lehen hezkuntza	128.198	8.522	6,6	5,0	1,6
Derrigorrezko bigarren hezkuntza (DBH)	79.374	5.494	6,9	3,9	3,0
Oinarritzko lanbide heziketa (OLH)	4.083	1.162	28,5	8,0	20,4
Batxilergoa	30.045	1.540	5,1	3,5	1,7
Erdi mailako LH	13.993	1.342	9,6	6,0	3,6
Goimailako LH	19.723	1.126	5,7	3,4	2,3
Guztira	368.734	25.731	7,0	4,8	2,2

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

Herrialdeka, Bizkaian daude Estatutik kanpo jaiotako ikasle gehien (15.197), baina proportzionalki hiru herrialdeen artean gutxien dituen da. Araban kontrakoa gertatzen da. Kopuruz, presentzia gutxiago dute ikasle hauek (7.299), baina ikasle guztiak kontuan hartuta, proportzionalki presentzia nabarmen handiagoa dute gainontzeko herrialdeekin alderatuta (%12 Araban, %8,6 Gipuzkoan eta %7,9 Bizkaian).

TAULA: IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAK, IKASLEAK* ETA ESTATUTIK KANPO JAIOTAKO IKASLEAK HERRIALDEAREN ARABERA, 2015/16

	Ikasleak guztira	Estatutik kanpo jaiotako ikasleak	
		kop.	%
EAE	385.524	33.785	8,8
Araba	60.748	7.299	12,0
Bizkaia	193.487	15.197	7,9
Gipuzkoa	131.289	11.289	8,6

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

*Helduen hezkuntza eta hezkuntza bereziak barne

A ereduan zentratuta ezberdintasun nabarmenak antzematen dira. Hurrengo taulan alderatzen dira A ereduan matrikulatutako ikasle guztien ehunekoa eta ondoan ikasle migratzaileak bakarrik kontuan hartuta, haietatik ze portzentaje dauden A ereduan.

Hasteko, EAE mailan, ikasmila guztietan da Estatutik kanpo jaiotako ikasleen portzentajea handiagoa, eta joera hori indartu egiten da ikasmailetan gora egin ahala. Horrela, haur hezkuntzan ikasle guztien %3,8a A ereduan matrikulatuta daude, ikasle migratuen kasuan %4 dira. LHn %6 eta %7,8 hurrenez hurren, DBHn %11,1 eta %29,3 eta Batxilerren %38,3 eta %83,8.

Herrialdez herrialde, Araba nabarmentzen da. Bizkaian zein Gipuzkoan, haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, A ereduan dauden ikasle migratuak proportzionalki gutxiago dira bertan jaiotakoak baino. Aldiz Araban, haur hezkuntzan 4,6 puntu altuagoa da migratuen presentzia eta lehen hezkuntzan 8,3 puntu altuagoa.

DBHn Gipuzkoan aldaketa ematen da baina oraindik nahiko paretsu mantentzen da. Bizkaian aldiz aldaketa nabarmena da eta ikasmila honetarako ikasle migratuen presentzia A ereduan dagokienetik oso gaineratik dago, ia hirukoiztu egiten du bertan jaiotakoen proportzioa (%32 eta %13,4 hurrenez hurren). Araban, aldeak handiagoak dira oraindik (%61,9 eta %21,8).

Batxilerren, hiru herrialdeetan dira aldeak oso handiak, nahiz eta herrialde bakoitzak bere ezaugarritze propioa duen, bakoitzean ematen diren joera orokorren ondorioz.

Beraz, D eredua indartsuagoa den lekuan (ikasmila batzuetan praktikan ia bakarra, Gipuzkoan) ikasle migratuak ere bertara joaten dira, integrazioa erraztuz. Kontrakoa, A eredua oraindik esanguratsua den lekuan (Arabian) ikasle migratuak bertara bideratzen dira edo dituztela ematen du, bereziki adinean gora egin ahala. Bizkaian erdibideko zerbait gertatzen da.


TAULA: IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAK, A EREDURAREN BANAKETA IKASLE GUZTIAK KONTUAN ETA ESTATUTIK KANPO JAIOTAKO IKASLEAK HERRIALDEAREN ARABERA, 2015/16

	EAE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Ikasle guztien % ¹	Estatutik kanpo jaiotakoen %	Ikasle guztien % ¹	Estatutik kanpo jaiotakoen %	Ikasle guztien % ¹	Estatutik kanpo jaiotakoen %	Ikasle guztien % ¹	Estatutik kanpo jaiotakoen %
HH	3,8	4,0	3,4	8,0	5,0	3,2	2,3	1,8
LH	6,0	7,8	7,8	16,1	7,8	7,6	2,6	1,9
DBH	11,1	29,3	21,8	61,9	13,4	32,0	3,0	5,6
Oinarrizko lanbide heziketa	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Batxilergoa	38,3	83,8	51,2	94,5	45,3	84,5	22,9	75,2
Erdi mailako LH ⁽²⁾	73,3	91,2	88,1	100,0	84,3	96,2	49,9	77,3
Goimailako LH		95,4		98,6		98,7		89,1

Iturria: Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

(1) Ia osorik A ereduak datuak badira era, X ereduak ere barne daude

(2) Ikasle guztien datuetan erdiko eta goiko mailako LH eta Zereginen Ikaskuntza hartzen ditu

GRAFIKOA: IRAKASKUNTZA EZ-UNIBERTSITARIOAK, A EREDURAREN BANAKETA IKASLE GUZTIAK KONTUAN ETA ESTATUTIK KANPO JAIOTAKO IKASLEAK HERRIALDEAREN ARABERA, 2015/16**Iturria:** Eustat. Eskola-jardueraren estatistika

4. EUSKARA EZAGUTZA, BILAKAERA

Orain arte hezkuntza eremuko datuak aztertu ditugu. Orain, datu soziolinguistikoetan murgilduko gara. Horietan erreferentzia nagusiak biztanleria zentsuak eta inkesta soziolinguistikoak izaten dira. Horiek xehetasunez ikusiko ditugu hurrengo ataletan.

4.1. ZENTSUEN ARGITAN, ELEBIDUN PROPORTZIOAK

Zentsuen datuak hartuko ditugu orain, 1981etik aurrera, eta horien baitan derrigorrezko eskolaldia amaitu aurretik eta amaitu ondorengo adin tarteak. Adin tarte bakoitzaren barruan dauden elebidunen ehunekoei erreparatuta ondokoa irakur daiteke:

1. 1981ean, hiru adin tarteetan zegoen elebidun proportzioa antzekoa zen (%19aren ingurukoa). Ondoren proportzio horiek handitzen hasten dira eta haien arteko tarteak zabaltzen, gero eta gehiago. Elebidun proportzioa gero eta handiagoa da zenbat eta gazteagoa izan. Neurri batean horrek aurretik ikusi dugun eskemari erantzuten diola interpreta daiteke, hau da, urtetik urtera gorantz hedatuz doala belaunaldi elebidunagoen joera.
2. Hala ere, zentsuaren azken urteari erreparatuta, geldialdia edo atzerakada ikusten da, bi modutan:


2.1 20-24 urte artekoen bilakaeran, 2011an jaitsiera dago, ia bi puntukoa.

TAULA: ELEBIDUN PROPORTZIOA 10-24 URTE ARTEKOETAN, EAE 1981-2011.

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011
10 - 14	19,4	26,2	37,3	55,5	65,5	76,7	84,0
15 - 19	18,6	23,2	29,7	44,6	56,3	67,9	73,3
20 - 24	19,0	23,4	25,1	34,3	44,4	59,7	57,8

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

GRAFIKOA: ELEBIDUN PROPORTZIOA 10-24 URTE ARTEKOETAN, EAE 1981-2011.



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak

- 2.2 Kontuan hartzen badugu zentsu batetik bestera bost urte pasatzen direla eta adin tarteak ere bost urtekoak direla, zentsu batean 15-19 urte tartean daudenak hurrengoan 20-24 urte artekoetan daude (migrazioak eta heriotzak gorabehera). Horrela irakurrita, 10-14 urte artekoak, zentsu batetik bestera beti euskaldundu dira bost urteko tarte horretan (Aldea 1 zutabeko datuak X taulan), 2011n izan ezik, 3,4 puntu jaitsi egin zela. 2006n 10-14 urtekoen artean %76,7 ziren elebidunak, baina 2011n 15-19 urtekoen artean %73,3ra jaitsi zen portzentajea. 15-19 urtetik 20-24ra irakurrita berdin gertatzen da, 1996-2001 artean salbu, non ehunekoa mantendu zen. Kasu honetan, 2006tik 2011ra jaitsiera nabarmenagoa da ordea, 10 puntu pasakoa (10,1 zehazki).

**TAULA: ELEBIDUN PROPORTZIOEN BILAKAERA POPULAZIO MULTZO BERTINEAN
10-24 URTE ARTEKOETAN, EAE 1981-2011.**

10-14	15 - 19	20 - 24	10-14	15 - 19	20 - 24	Aldea 1	Aldea 2	Aldea guztira
1981	1986	1991	19,4	23,2	25,1	3,8	1,9	5,7
1986	1991	1996	26,2	29,7	34,3	3,5	4,6	8,1
1991	1996	2001	37,3	44,6	44,4	7,3	-0,2	7,1
1996	2001	2006	55,5	56,3	59,7	0,8	3,4	4,2
2001	2006	2011	65,5	67,9	57,8	2,4	-10,1	-7,7
2006	2011		76,7	73,3		-3,4		

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak. Aztikerrek landua

Datu horiek kontrastatzeko, inkesta soziolinguistikora joko dugu orain. Kasu horretan ematen diren adin tarteak 9 urtekoak direla kontuan hartu behar da. Beraz, , adibide bat emateko, 1991n 16-24 urte zituztenak 2001ean 25-34 zituztenekin alderatuko ditugu, populazio berdinen bilakaera aztertzeko.

Inkesta datuak aztertuta, kasu honetan ez da ikusten adin tarte berdinen barruan atzerakadarik dagoenik euskalduntzean. Aldiz, populazio multzoa aztertzean aurretik esandako joera errepikatzen dela ikusten da.

TAULA: HIZTUN PERFILAK 16-24 URTE ARTEKOETAN, EAE 1991-2016.

		1991	1996	2001	2006	2011	2016
Elebiduna	16-24	25	35,9	48,5	57,5	59,7	71,4
	25-34	22,7	27,3	31,6	37,3	44,5	49,3
Elebidun hartzailea	16-24	21	35,4	20,2	24,9	23,2	17,6
	25-34	8,1	25,9	17,8	26	25	26,7
Erdaldun elebakarra	16-24	54,1	28,7	31,4	17,6	17	11
	25-34	69,3	46,8	50,5	36,7	30,5	24

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzak

Hau da, elebidunen multzoa hartuta, 1991n 16-24 urte artean zituztenen %25 ziren elebidunak. 2001ean, 25-34 urte artean zituztenen %31,6, hau da, 6,6 puntu handitu zen elebidunen proportzioa. Neurketaz neurketa, alde hori txikitzen joan da, eta azken hamar urteetan negatiboa izan da bilakaera. 2016an 25-34 urte zituztenen multzoak 8,2 puntu egin zuten behera 10 urte lehenagoko zifrarekin alderatuta.

**TAULA: ELEBIDUN PROPORTZIOEN BILAKAERA POPULAZIO MULTZO BERTINEAN
16-24 URTE ARTEKOETAN, EAE 1991-2016.**

16-24	25-34	16-24	25-34	<i>Aldea</i>
1991	2001	25,0	31,6	6,6
1996	2006	35,9	37,3	1,4
2001	2011	48,5	44,5	-4,0
2006	2016	57,5	49,3	-8,2

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritza. Aztikerrek landua

4.2. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOEN ARABERA, ELEBIDUNAK ZIRENAK, BIHURTU DIRENAK ETA ERDALDUN ELEBAKAR MANTENTZEN DIRENAK

Atal honetan ezagutu nahi dugu hezkuntza sistemaren eragina zenbatekoa izan daitekeen (eta zenbatekoa ez). Hau da, egungo gazteen euskara ezagutza maila zein den jakiteaz gain, horretara nola iritsi diren (edo ez diren) jakin nahi dugu. Horretarako, inkesta soziolinguistikoak ematen dizkigun hiru aldagai hartu eta gurutzatu egingo ditugu, aldagai egokiagoen faltan: adina, lehen hizkuntza eta euskara gaitasuna.

Baina horretan hasi aurretik, ohar pare bat. Ez da gauza erraza kuantifikatzea urte horietan guztietan euskara etxean ikasi duten gazteak, hezkuntza sistemari esker euskaldundu direnak eta euskaldundu ez direnak. Lehen arrazoia da eskola ez dela agente bakarra pertsonen euskalduntzerako. Beste bat honakoa da: hizkuntza eredu bakoitzaren euskalduntze gaitasuna ezberdina da gune soziolinguistikoaren arabera (bereziki B ereduaren kasuan antzematen da hori, baina ez hor bakarrik). Hirugarren arrazoia da gazte asko euskaldunak direla jatorriz, alegia, lehen hizkuntza (edo horietako bat) euskara dutela; beraz, eskola euskaldun normalizatua behar dute, eta ez murgiltze eredu bat. Horiek eta beste arrazoi asko tarteko, datu askorik gabe egin daitekeen estimazioa beti hankamotza izango da. Estimazio zehatz bat egin baino, errealitate horretara hurbilpen bat egin nahi dugu atal honetan.

Aipatu hiru aldagai horiek gurutzatuta agertzen dira ondoko taulan. Adina 16 eta 24 urte artekoa da, beraz, derrigorrezko hezkuntza amaitu eta hurrengo sei urteei dagokiena. Taulako datuak irakurrita nabarmentzen diren hainbat puntu:

1. 2016an, lehen hizkuntza euskara duten guztiak elebidun bilakatzen dira. Horiek gazteen %22 osatzen dute.
 - 1.1. Azken 25 urteetan 6 puntu igo da portzentaje hori. Hau da, etxean euskaldundu diren gazteen portzentajea 6 puntutan igo da.
2. Euskara, beste hizkuntza batzuekin batera, lehen hizkuntza duten gazte ia guztiak elebidun dira 2016an. Horiek %10,9 osatzen dute. Talde horren portzentajea ere handitu da 1991tik, 8 puntutan. Gainera, lehen hizkuntzatzat bi hizkuntza izanik euskaldundu gabe geratzen diren gazteen portzentajea txikitu da ia desagertzeraino, aurretik txikia bazen ere (%0,7 1991 edo %1,1 1996an, %0,2 2016an).
3. Multzo nagusia lehen hizkuntza erdara dutenena da oraindik. 2016ko inkestaren arabera, 16-24 urte artekoetan guztira %66,9 dira. 1991an %79,6 ziren eta, ordutik, haien proportzioa jaisten joan da, bereziki 2011tik. Gazte guztiak kontuan hartuta, lehen hizkuntza erdara eduki eta elebidun bihurtu direnek osatzen dute multzo nagusia 2016an, %38,5 baitira zehazki.

TAULA: 16-24 URTE BITARTEKOEN EUSKARA-GAITASUNA LEHEN HIZKUNTZAREN ARABERA, EAE 1991-2016.

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Lehen hizkuntza euskara eta elebiduna	15,8	17,2	13,3	16,0	17,7	22,0
Lehen hizkuntza euskara eta elebidun hartzailea	0,9	0,3	.	.	.	.
Lehen hizkuntza euskara eta erdaldun elebakarra	0,3	0,3	0,3	.	.	.
Lehen hizkuntza biak eta elebiduna	2,6	4,5	7,2	9,2	10,9	10,9
Lehen hizkuntza biak eta elebidun hartzailea	0,7	0,8	2,0	0,5	.	0,2
Lehen hizkuntza biak eta erdaldun elebakarra	0,0	0,3	.	.	.	.
Lehen hizkuntza erdara eta elebiduna	6,6	14,1	28,0	32,3	31,2	38,5
Lehen hizkuntza erdara eta elebidun hartzailea	19,3	34,3	18,1	24,4	23,2	17,4
Lehen hizkuntza erdara eta erdaldun elebakarra	53,7	28,1	31,0	17,6	17,0	11,0
Guztira	99,9	99,9	99,9	100	100	100

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa

Lehen hizkuntza erdara izan dutenak bakarrik hartuta, argi ikusten da gero eta gehiago euskalduntzen direla. 1991n %8,3 ziren euskalduntzen zirenak. 2016an, %57,5. Irabazia argia da. Kontrako joera eman da euskaldundu gabe geratu diren gazteengan: gero eta gutxiago dira. %67,5 izatetik 1991n, %16,4 izatera pasa dira. Tartean, guztiz euskaldundu gabe baina ulertzeko gai direnen multzoak gorabehera handiak izan ditu epealdi honetan. Hala ere, azken urteetan horiek ere beherantz doaz: egun %26 osatzen dute.

TAULA: 16-24 URTE BITARTEKOEN LEHEN HIZKUNTZA ERDARA ETA EUSKARA-GAITASUNA, EAE 1991-2016.

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Lehen hizkuntza erdara eta elebiduna	8,3	18,4	36,3	43,5	43,7	57,5
Lehen hizkuntza erdara eta elebidun hartzailea	24,2	44,8	23,5	32,8	32,5	26,0
Lehen hizkuntza erdara eta erdaldun elebakarra	67,5	36,7	40,2	23,7	23,8	16,4
Lehen hizkuntza erdara guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
16-24 eta lehen hizkuntza erdara	79,6	76,5	77,1	74,3	71,4	66,9

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa

Datu horiek bere horretan hartuta, lau multzo osatu ditugu: etxean euskaldunduak (lehen hizkuntza euskara izan dutenak eta euskaldun direnak), etxean/eskolan euskaldunduak (lehen hizkuntza euskara eta erdara biak izan dituztenak eta euskaldun direnak), eskolan euskaldunduak (lehen hizkuntza erdara izan dutenak eta euskaldun direnak) eta euskaldundu gabeak (erdaldun elebakarrak eta elebidun hartzaileak). Aurrez adierazi den moduan, jakin badakigu eskema hau ez dela zorrotza: adibidez, baliteke lehen hizkuntza erdara izan eta eskolan beharrean euskaltegi baten euskaldundu izana. Edo 18 urterekin Euskal Herrira iristea eta ondorioz hezkuntza sistematik pasa gabe egotea. Edozein kasutan hurbilpen gisa baliagarria izan daitekeela uste dugu.

TAULA: 16-24 URTE BITARTEKOEN LEHEN HIZKUNTZA ETA EUSKARA-GAITASUNA KONTUAN HARTUTA EUSKALDUNTZE BILAKAERA ETA BIZTANLERIA OSORA PROIEKZIOA, EAE 1991-2016.

	Etxean euskaldunduak	Etxean/Eskolan euskaldunduak	Eskolan euskaldunduak	Euskaldundu gabeak	Biztanleria (jaiotza urtea)		Etxean euskaldunduak	Etxean/Eskolan euskaldunduak	Eskolan euskaldunduak	Euskaldundu gabeak
1991	15,8	2,6	9,2	74,9	1968-76	321.490	50.795	8.359	29.577	240.796
1996	17,2	4,5	18,6	64,1	1973-81	310.603	53.424	13.977	57.772	199.097
2001	13,3	7,2	35,2	51,4	1978-86	253.790	33.754	18.273	89.334	130.448
2006	16	9,2	41,5	42,5	1983-91	198.575	31.772	18.269	82.409	84.394
2011	17,7	10,9	42,1	40,2	1988-96	169.214	29.951	18.444	71.239	68.024
2016	22	10,9	49,4	28,6	1993-01	164.873	36.272	17.971	81.447	47.154

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa eta Aztikerrek egina


Kontuan hartuta hizkuntza ereduen sistema 1983an jarri zela indarrean, 1977an jaiotakoak izan ziren lehenak sistema horretan. Hori ikusita, 2001eko inkesta datuak eta hurrengoak hartuko ditugu erreferentziazat (ordurako 24 urte zituztelako, inkestak ematen dituen datuen adin tartea). Inkesta soziolinguistikotako datuak konparatzerakoan, zailtasun batekin egiten dugu topo. Inkestak ematen dituen emaitzak 8 urteko adin tartean sailkatuta daude, baina inkesta lan hau 5 urtean behin egiten da. Beraz, inkesta emaitza batetik bestera, datu multzo berean errepikatzen du pertsona talde batek. Hau da, adibidez, 2001ean 16-19 urte artean zituztenek, 2006an 21-24 urte artean zituzten. Ondorioz, pertsona berak daude urte bateko datuan eta bestean, eta ezin dira datu horiek besterik gabe batu. Metodo hobeagorako tresnarik ezean, soluzio modura inkesta urte bakoitzari 5 urteko datua kalkulatu diogu eta ondoren guztiak batu. Horrela gelditu da emaitza:

TAULA: LEHEN HIZKUNTZA ETA EUSKARA-GAITASUNA KONTUAN HARTUTA EUSKALDUNTZE BILAKAERA ETA BIZTANLERIA OSORA PROIEKZIOA, 5 URTEKO TARTERA EKARRIA. EAE 1991-2016.

	Etxean euskaldunduak	Etxean/Eskolan euskaldunduak	Eskolan euskaldunduak	Euskaldundu gabeak	5 URTEKO TARTERA EKARRIA (X/8*5)			
					Etxean euskaldunduak	Etxean/Eskolan euskaldunduak	Eskolan euskaldunduak	Euskaldundu gabeak
1991	50.795	8.359	21.218	240.796	31.747	5.224	13.261	150.498
1996	53.424	13.977	43.795	199.097	33.390	8.736	27.372	124.435
2001	33.754	18.273	71.061	130.448	21.096	11.421	44.413	81.530
2006	31.772	18.269	64.140	84.394	19.858	11.418	40.087	52.746
2011	29.951	18.444	52.795	68.024	18.719	11.528	32.997	42.515
2016	36.272	17.971	63.476	47.154	22.670	11.232	39.673	29.471
2001-2016 BATUKETA					82.343	45.598	157.170	206.263

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa eta Aztikerrek egina

Guztira, beraz, 206.263 pertsona lirateke egun euskaldundu ez direnak. Etxean euskaldundu direnak 82.343, eskolan euskaldunduak 157.170 eta beste 45.598 etxean edota eskolan euskaldundu direnak (lehen hizkuntza euskara eta erdara izan dutenak eta elebidun direnak egun) . Beraz, gehiago dira eskolan euskaldundu gabeko gazteak euskaldundu direnak baino.

GRAFIKOA: 16-24 URTE BITARTEKOEN EUSKALDUNTZE BILAKAERA PROIEKZIOA, EAE 1991-2016.**Iturria:** Aztikerrek egina

4.3. EUSKARA EZAGUTZATIK HARATAGO, EUSKARA MAILA


Bestalde, euskara erabilerari gehien eragiten dion faktoreetako bat gaitasun erlatiboa da. Euskara ezagutza ez da nahikoa. Ia determinantea da gazte horiek euskararen zein maila duten eta, are gehiago, erdararekiko zein maila duten. Hau da, euskara ezagutu bai baina normaltasunez erabiltzeko gaitasuna duten edo ez, hori beste kontu bat da. Gauza jakina da soziolinguistikan, eta zer esanik ez glotodidaktikan, eskolak hizkuntzak irakasteko ahalmen mugatua duela. Jakitun gara eskolak hizkuntza maila mugatu bat besterik ezin diola eskaini ikasleari (egiten den moduaren arabera handiagoa edo txikiagoa), hizkuntzak ikasteko naturala den egoeraren osagai batzuk besterik ez dituelako eta, aldiz, askotan ez duelako ziurtatzen jatorrizko hiztunekiko interakzioa, hizkuntza bat ikasteko era naturala dena.

Beraz, orain jakin nahiko genuke zein euskara maila eskuratzen duten ikasleek. Horretarako bide ezberdinak egon daitezke. Gu hiru modutan hurbilduko gara eremu horretara. Lehenengo, ISEI-IVEIk Ebaluazio Diagnostikoan neurtzen duen euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren azterketa egingo dugu. Bigarren, ISEI-IVEI berak 2005ean egindako azterketa bat baliatuko dugu, zeinetan aztertu zuten Europako Kontseiluko Hizkuntzen Erreferentzia Markoa hartuta DBH4ko ikasleen artean zenbatek eskuratuko luketen B2 maila (EGaren aurreko maila, alegia). Hirugarren, inkesta soziolinguistikoetatik euskara gaitasun erlatiboa aztertuko dugu. Azterketa horietako bakoitzean neurtzen den euskara maila ez da berdina, ez dira neurketa konparagarriak bere horretan. Lehenengotik hirugarrenera, esan daiteke kutsu akademikoagotik kutsu informalagora doazela. Baina hirurak aztertuta uste dugu koadro orokor bat osa daitekeela.

4.3.1. Ebaluazio Diagnostikoa: Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia, 2. DBH

ISEI-IVEIk Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan egiten duen Ebaluazio Diagnostikoa erabiliko dugu atal honetan. Ebaluazio honen ezaugarriak hauek dira: zentsuaren arabera da, Lehen Hezkuntzako 4. mailako (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) 2. mailako ikasle guztiek hartzen baitute parte (guk bigarren horien datuak bakarrik erabiliko ditugu hemen); kanpoko da (barne-izaerarekin ebaluatu diren hizkuntza-konpetentzietako zenbait dimentsio izan ezik); estandarizatua da; eta azkenik, prestakuntza- eta orientazio-izaera du ikastetxeetarako, eta informazio-izaera familientzat. Ebaluazio Diagnostikoko bost edizioetan, oinarrizko hiru konpetentzia ebaluatu dira modu finkoan (euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa eta matematikarako konpetentzia). Guk euskarazko konpetentzien inguruko datuak erabiliko ditugu, argitaratutako azkenak.

2015ean EAEko 2. DBHko ikasleek 249 puntuko batez bestekoa lortu dute euskarazko hizkuntza komunikaziorako konpetentzian. Batez besteko hori aurreko Ebaluazio Diagnostikoan (ED13) lortutakoaren 7 puntu azpitik dago, eta lehen edizioan (ED09) lortutakoaren puntu 1 azpitik. Aldeak estatistikoki adierazgarriak dira.

GRAFIKOA: DBHKO 2.MAILA. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15. EMAITZA OROKORREN BILAKAERA EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAN.


Iturria: Ebaluazio diagnostikoa. txosten exekutiboa derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. maila. 2015

ED15ean, errendimendu mailen arabera sailkatzeari dagokionez, ikasleen %54,2k gaintitu du konpetentzia honetako hasierako errendimendu maila, eta % 16,4 maila aurreratua izatera iritsi da. EDko beste edizioetan gertatu den moduan, ehunekoak oso desberdinak dira geruza bakoitzean.

Errendimendu mailetan (hasierakoa, erdi-maila eta aurreratua) ED09 eta ED15eko emaitzak alderatuz gero, igoera nabari da hasierako mailan kokatutako ikasleen ehunekoan (%+7,7), baina ikasleen jaitsiera erdiko mailan (%-5,8) eta maila aurreratuan (%-2).

Errendimendu mailetan ikasleen ehunekoaren bilakaera aztertu ostean, ikus daiteke ED09 eta ED10 artean beherakada gertatu zela hasierako eta erdiko mailan kokatutako ikasleen ehunekoetan, eta igoera, berriz, maila aurreratuan. Hortik aurrera, ikasleen ehunekoak gora egin du hasierako errendimendu mailan eta behera egin du erdiko errendimendu mailan eta maila aurreratuan. Bi salbuespen daude:


- ED10etik ED11ra errendimenduko erdiko mailan dauden ikasleen ehunekoan igoera txiki bat gertatu da (% 0,3).
- 2011ko Ebaluazio Diagnostikoaren ediziotik 2013kora, errendimenduko maila aurreratua duten ikasleen ehunekoa mantendu egin da.

GRAFIKOA: DBHKO 2.MAILA. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15. IKASLEEN EHUNEKOA EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO ERRENDIMENDU MAILEN ARABERA.

Iturria: Ebaluazio diagnostikoa. txosten exekutiboa derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. maila. 2015

Hurrengo grafikoan jasotzen da geruza bakoitzeko emaitzek izan duten bilakaera Ebaluazio Diagnostikoko 5 edizioetan. Ebaluazio Diagnostikoko lehen edizioa (ED09) geruza guztien puntuazioak azken Ebaluazio Diagnostikoko puntuazioekin (ED15) alderatzen baldin badira, honako hau antzemango dugu:

- A publikoan (12 puntu) eta itunpeko A geruzan (13 puntu) eskolatutako ikasleen puntuazioetan gorakada adierazgarria gertatu da.
- B geruza publikoko (21 puntu), D publikoko (9 puntu), itunpeko B geruzako (12 puntu) eta itunpeko D (3 puntu) geruzako ikasleek lortutako puntuazioek nabarmen egin dute behera.

GRAFIKOA: DBHKO 2 MAILA. ED09-ED10-ED11-ED13-ED15. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN BILAKAERA GERUZEN ARABERA.

Iturria: Ebaluazio diagnostikoa. txosten exekutiboa derrigorrezko bigarren hezkuntzako 2. maila. 2015

Orain arte egindako Ebaluazio Diagnostikoko edizioetan geruzen emaitzak alderatuz gero, honako hau ikus daiteke:

- Emaitzarik baxuenak A geruza publikoak eta itunpeko A geruzak lortu dituzte. Puntuazioetako aldeak adierazgarriak dira gainerako geruza publikoekin eta itunpekoekin alderatuta.
- A geruza publikoak itunpeko A geruzak baino puntuazio baxuagoak ditu. Puntuazioetako aldeak estatistikoki adierazgarria da.
- Emaitzarik altuenak D geruza publikoak eta itunpeko D geruzak lortu dituzte. Puntuazioetako aldeak adierazgarriak dira gainerako geruza publikoekin eta itunpekoekin alderatuta.
- D geruza publikoak itunpeko D geruzak baino puntuazio baxuagoak ditu. Aldea estatistikoki adierazgarria da.
- Itunpeko B geruzak B geruza publikoak baino puntuazio nabarmen altuagoak lortu ditu.

4.3.2. Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4)

Azterketa hau beste modu batean planteatuko dugu orain. 2005ean ISEI-IVEIk *Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4)* azterlana egin zuen. Lan horretan Euskara proba egin zuten helburu nagusi honekin: hizkuntza maila zehatza ezarrita, DBHko 4. kurtsoko ikasleen euskara ezagutza neurtzea.

Aipatutako hizkuntza maila horrekin neurtu nahi ziren curriculumetik at dauden mailak eta edukiak –kasu askotan bat badatoz ere-. Maila zein eduki horiek Europako Kontseiluko Hizkuntzen Erreferentzia Markotik bildu ziren, hain zuzen ere marko horretan deskribatzen den B2 mailatik.

Euskara proba horretan, Erreferentzia Markoaren irizpideak jarraituz, ikaslearen hizkuntza gaitasun komunikatibo eta linguistikoa neurtu zuten. Horretarako, hizkuntzaren lau trebetasun komunikatiboak hautatu zituzten ebaluatzeko asmoz: irakurmena, idazmena, entzumena eta mintzamena. Era berean, gaitasun linguistikoko aldetiko hizkuntza ezagutzak ere jaso zituzten (gramatika, sintaxia, hiztegia eta abar).

Helburu orokorrarekin batera, beste helburu hau ezarri zuten: jakitea ea DBHko 4. kurtsoko ikasleen euskara ezagutza B2 maila horretara iristen den ala ez.

Froga horiek B eta D ereduko ikasleekin egin zituzten.

B2 maila EGA mailaren azpitik legoke. Zehazki, markoko B2 mailak edo maila aurreratuak Europako Kontseiluaren hirugarren zehaztapena islatzen du, eta honela deskribatu zen: gaitasun operatibo mugatua. Maila honetan ikaslea testu konplexuen ideia nagusiak ulertzeko gai da; testu zehatzak zein testu abstraktuak ulertu behar ditu, eta baita ikaslearen espezialitateko testu teknikoak ere.

B2 mailako ikasleek badute ahalmena nahikoa naturaltasun eta jariatortasunez hitz egiteko bertako hiztunekin; hortaz, komunikazioa aurrera eramaten da hiztunek ahalegin eskerga egin gabe. Bestalde, maila honetan ikasleek zenbait gairi buruzko idazki zehatz eta argiak ekoiztu

ahal dituzte; halaber, badute ahalmena gai orokorreki buruzko norberaren ikuspuntua edo iritzia defendatzeko, emandako aukeren alde edo kontrako argudioak erabiliz.

Lanaren emaitza nagusietako bat honakoa izan zen: B ereduan, gainditu zuten ikasleen kopuru orokorra %27,5 izan zen mintzamen probarik gabe. B ereduan Mintzamenarekin %32,6k gainditzen zuen. D ereduko ikasleen emaitza orokorra %57,2koa izan zen proba idatzietan. Mintzamenarekin, berriz, %68.

Estimazioa egiteko lan hori hartuko dugu erreferentziazat, jakinda eragin zuzena izango zutela datu horietan bai inguru soziolinguistikoak eta baita urtez urte (aurretik eta ondoren) aldatzen joango ziren gainontzeko faktore soziolinguistikoek ere. Adibidez, ezberdina izango zen 2005ean D eredua osatzen zuten ikasleen ezaugarrien artean lehen hizkuntza euskara zutenen proportzioa hurrengo urteetan izan zutenekin alderatuz gero. Horrela, mintzamina kontuan hartuta emandako proportzio horiekin egin dugu hurrengo estimazioa. Hau da, B ereduan %32,6k eskuratzen du B2 maila eta D ereduan %68k. A ereduan %0 ezarri dugu.

Bestalde, zein ikasle hartu kontuan kalkulua egiteko? 1983-84 ikasturtean jarri zen martxan ofizialki hizkuntza ereduen hezkuntza. OHOk lehen mailan 6 urteko umeak hasi zirela kontuan hartuta, **egun 18 eta 40 urte artean dutenak dira gure ikerketa unibertsoa.**


Derrigorrezko hezkuntza aintzat hartzen badugu (garai horretan 6 urtetik 14ra, hau da, OHotzat ezagutzen zena), urte horretan lehen mailan hasi zirenek 1991-92an amaitu zituzten oinarrizko ikasketak. Hau da, derrigorrezko hezkuntza aintzat hartuta, dekretu honen azpiko lehen promozioa 1991-92 ikasturtea amaitzean irten zen. 1997/1998 eta 1998/1999 ikasturteetan "ikasle poltsa" handitu zen, 16 urtera arte handitu baitzen derrigorrezko hezkuntza aldia. Data horiek gaindituta, 2001/02 ikasturtetik aurrera egingo ditugu guk estimazioak orain. Beraz, hemen egingo diren kalkuluak baino handiagoak lirateke benetako zenbakiak, lege horien pean gertatutakoak.

Hurrengo taula eta grafikoetan ikusten den bezala, 2001/02 ikasturtean dezente gehiago ziren B2 maila eskuratzen ez zuten ikasleak maila hori gainditzen zutenak baino, ia kopuru bikoitza. Ordutik, bi multzo horiek parekatzen joan dira, eta proiektzioaren arabera, azken ikasturtean B2 maila edo altuagoa eskuratuko luketenak gainetik leudeke.


TAULA: HIZKUNTZA-EREDU BAKOITZEKO MATRIKULAZIOA 2001/16 ARTEAN ETA EUSKARA MAILAREN PROIEKZIOA 4.DBH, EAE.

	A	B	D	b2 edo gehiago	B2 AZPITIK
2001/02	7.443	4.597	7.811	6.810	13.041
2002/03	6.675	4.353	7.651	6.622	12.057
2003/04	6.053	4.199	7.933	6.763	11.422
2004/05	5.338	3.775	7.535	6.354	10.294
2005/06	4.962	3.597	7.668	6.387	9.840
2006/07	4.450	3.589	7.885	6.532	9.392
2007/08	4.123	3.757	8.091	6.727	9.244
2008/09	3.769	4.000	8.320	6.962	9.127
2009/10	3.156	4.184	8.311	7.015	8.636
2010/11	2.939	4.241	8.540	7.190	8.530
2011/12	2.631	4.448	9.118	7.650	8.547
2012/13	2.465	4.505	9.718	8.077	8.611
2013/14	2.179	4.407	9.708	8.038	8.256
2014/15	2.101	4.431	10.468	8.563	8.437
2015/16	2.009	4.749	10.992	9.023	8.727
<i>Guztira</i>	60.293	62.832	129.749	108.713	144.161

Iturria: Hezkuntza-sistemari buruzko estatistikak. Hezkuntza Saila. 2016 eta Aztikerrek egina

GRAFIKOA: EUSKARA MAILAREN PROIEKZIOA (KOPURUAK) 4.DBH, EAE.


Iturria: Aztikerrek egina



Iturria: Aztikerrek egina

Proiekzioaren datuak hartuta, azken 15 urteetan derrigorrezko ikasketak amaitu dituzten pertsonen artean, 144.161 ikasle leudeke B2 maila eskuratu ez dutenak (%57) eta 108.713 ikasle B2 maila edo altuagoa eskuratu dutenak (%43).

GRAFIKOA: 2001/16 ARTEAN 4.DBH AMAITU DUTENEN ARTEKO EUSKARA MAILA



Iturria: Aztikerrek egina

4.3.3. Euskara gaitasun erlatiboa

Hurrengo taulan eta grafikoan ageri da zein hizkuntzetan moldatzen diren errazago 16 eta 24 urte arteko elebidunak 1991tik hona. Erdaraz hobeto moldatzen diren elebidun gazteak dira multzo nagusia osatzen dutenak, %55,7. Ondoren datoz euskaraz hobeto moldatzen direnak, %25,3. Urte hauetako guztietako bilakaera aztertuta, ez da joera argirik antzematen. Badirudi bi multzo horiek ari direla hazten, bietan berdin moldatzen direnen kaltetan, baina gorabehera nabarmenak daude neurketa batetik bestera (ziurrenik lagin txikien ondorioz).


Aurreko datuak kontuan hartuta, hau da, lehen hizkuntza erdara eduki eta elebidun bilakatu direnen multzoa dela nagusia, ez da gutxi erdaraz hobeto moldatzen direnen multzoa ez haztea. Hala ere, hortxe nabarmentzen da eskolaren eta hizkuntza ereduaren zailtasun nagusietako bat.

TAULA: 16-24 URTE ARTEKO ELEBIDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO. ERRAZAGO HITZ EGITEN DUEN HIZKUNTZA, 1991-2016 EAE

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Euskaraz	19,6	18,3	21	21,6	23,4	25,3
Euskaraz eta erdaraz	27	32,8	24,2	22,7	26	19
Erdaraz	53,4	48,9	54,8	55,7	50,6	55,7

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa

GRAFIKOA: 16-24 URTE ARTEKO ELEBIDUNEN ERRAZTASUNA EUSKARAZ EGITEKO. ERRAZAGO HITZ EGITEN DUEN HIZKUNTZA, 1991-2016 EAE




Iturria: Inkesta soziolinguistikoa

Elebidun diren gazte gehienek erdaraz, eta kasu honetan gaztelaniaz zehatzago, dute erraztasun handiagoa. Gazte guztiak kontuan hartuta, beraz, multzo nagusia gaztelaniaz hobeto moldatzen diren elebidunek osatzen dute, %39,8. Euskaraz erraztasun gehiago dutenak edo erraztasun maila bera dutenak euskaraz eta gaztelaniaz %31,6 osatzen dute EAEn.

TAULA: 16-24 URTE BITARTEKOEN EUSKARA-GAITASUNA ETA ERRAZTASUNA, EAE 2016.

	2016
Elebiduna	71,4
Euskaraz	18,1
Euskaraz eta erdaraz	13,6
Erdaraz	39,8
Elebidun hartzailea	17,6
Erdaldun elebakarra	11,0

Iturria: Inkesta soziolinguistikoa**GRAFIKOA: 16-24 URTE BITARTEKOEN EUSKARA-GAITASUNA ETA ERRAZTASUNA, EAE 2016.****Iturria:** Inkesta Soziolinguistikoa 2016.

Hiru metodoen emaitzak elkarren ondoan jarri ditugu beheko taulan, emaitzak alderatzeko asmoz. Hala ere, emaitzak ezin dira zuzenean alderatu, bi desberdintasun nagusi baitaude: batetik, adin ezberdinetako gazteei egiten diete erreferentzia (DBH2, DBH4 eta 16-24 urte artekoak); eta, bestetik, emaitzak eskala ezberdinetan datoz —lehenengoan hasierako maila, erdiko eta aurreratua; bigarrenean B2 maila eskuratu edo ez; eta hirugarrenean hiltun perfila—. Hala ere ISEI-IVEIk egindako ebaluazio diagnostikoetan B2 maila hartzen dute erreferentzia gisa, Francisco Luna ISEI Irakats-Sistema Ebaluatzeko eta Ikertzeko erakundeko ikertzailearen arabera³. «ISEI barruan badugu hipotesi bat: DBHko bigarren kurtsoan hasierako mailan ageri denak zail du DBH amaitzean B2 maila izatea». Hemen erkatu ditugun datuak hipotesi horren norabidean doaz.

³ https://www.berria.eus/paperekoa/1958/002/001/2015-10-04/urruneko_titulua_gehienen_mailarako.htm

Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzekin alderatzean ISEiren datuetatik egindako lanketa ezberdinak, B2 mailaren azpitik geldituko lirateke ziurrenik erdaldun elebakarrak eta elebidun hartzaileak, hau da, Ebaluazio Diagnostikoaren hasierako mailan. Beste muturrean, elebidun orekatuak eta euskal elebidunak daude: horiek B2 edo maila altuagoa eskuratuko lukete eta, ziurrenik, Ebaluazio Diagnostikoaren maila aurreratuan daudenak talde horren baitako euskal elebidunak izango dira. Tartean, erdal elebidunak daude. Horien artean profil ezberdinak egongo dira, hainbat aldagairen arabera: gune soziolinguistikoaren arabera, ikasitako hizkuntza ereduaren arabera, eta abar. Horietako askok, ziurrenik, ez lukete B2 maila eskuratuko eta Ebaluazio Diagnostikoaren hasierako mailan egongo lirateke.


TAULA: EUSKARA MAILAREN AZTERKETARAKO HIRU METODOEN ALDERAKETA

Ebaluazio diagnostikoa 2015 (2. DBH, 13 urte)		B2 (4. DBH, 15 urte. 2015/16)		ISL 2016 (16-24 urte)	
Hasierako maila	45,8	B2 baino txikiagoa	49,2	Erdaldun elebakarra	11,0
				Elebidun hartzailea	17,6
Erdi-maila	37,8	B2 edo gehiago	50,8	Erdal elebidunak (Elebidunak erdaraz errazago)	39,8
				Elebidun orekatuak (euskaraz eta erdaraz berdin)	13,6
Maila aurreratua	16,4			Euskal elebidunak (Elebidunak euskaraz errazago)	18,1

Iturria: Aztikerrek egina

4.4. EUSKARA IKASLEAK EUSKALTEGIETAN⁴


Azken 16 urteetan euskara ikasleen datuak hainbat gorabehera izan ditu. Goia ia 40.000 ikasletan izan du eta, aldiz, matrikulazio eskasena 32.000ren bueltan egon da.



Iturria: HABE

2016/17 ikasturtean, guztira 34.664 pertsonak eman dute izena euskaltegiren batean. Horietatik %55ek 40 urte baino gutxiago ditu. Hau da, horietako gehienek egungo hezkuntza sistematik pasa eta hala ere euskaltegi batera joan behar izan dute. 16-20 urteko tarteak kenduta, 45 urtera arte ikasle proportzioak hazi egiten dira adin tarteak gora egin ahala; eta 45eko mugaren ondoren nabarmen jaisten da berriro. Aipatutako lehen adin tarte horretan, aurrerago ikusiko den bezala, EGA eskuratu nahi dutenen zenbakiak grafikoa desitxuratu egiten du.

GRAFIKOA: EUSKARA IKASLEAK ADINAREN ARABERA. EAE 2016/17




Iturria: HABE

⁴ Hizkuntza eskoletako euskara ikasleen datuak falta dira.

40 urte azpiko pertsona horiek hartuta, gehienak C1 edo EGA azpiko mailak eskuratzeko helburuarekin ari dira euskaltegietan ikasten (%57,9). Maila horiek guztiak berezitu eta banaka hartuta, ordea, C1 da multzo nagusia (%38,9) eta jarraian B2 (%22,3) eta B1 (%13,3). Hastapenetan daudenak (A1) %12,8 dira.

Alabaina, C1ean dauden ikasleen ia erdia (%45,7), 16-20 urte artekoak dira. Baldintza bakarra dago EGA proba egiteko: 17 urte edukitzea edo urte horretan betetzea. Derrigorrezko hezkuntza bukatu berritan, gazte asko saiatzen dira EGA titulua eskuratzen, nahiz eta gehienek ez duten lortzen.


GRAFIKOA: 16-40 URTE ARTEKO EUSKARA IKASLEAK MAILAREN ARABERA. EAE 2016/17 IKASTURTEA (%)



Iturria: HABE

16-20 urte artekoak kentzen baditugu, maila bakoitzeko banaketa zertxobait aldatzen da. C1 mailak jarraitzen duen arren nagusia izaten, nabarmen jaisten da (%38,9tik %28ra) eta gainontzekoak igo egiten dira.


GRAFIKOA: 21-40 URTE ARTEKO EUSKARA IKASLEAK MAILAREN ARABERA. EAE 2016/17 IKASTURTEA (%)



Iturria: HABE

Gutxitzen badoaz ere, 2016/17 ikasturtean 40 urte azpiko 11.000 ikasle baino gehiagok eman dute izena C1 azpitik dagoen euskara maila bat eskuratzeko. Horietako gehienak egungo hezkuntza sistematik pasa dira. Pertsona horiei C1 maila dutela egiaztatzen duen agiria eskuratzen ez dutenen proportzioa batuz gero, 15.000tik gora joango litzateke kopurua.

GRAFIKOA: 16-40 URTE ARTEKO EUSKARA IKASLEAK C1 AZPIKO MAILETAN. EAE 2000-17



Iturria: HABE


4.5. ATZERRIKO HIZKUNTZEN EZAGUTZA ETA IKASKETA

4.5.1. INGELESAREN EZAGUTZA

2017ko maiatzean Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak (PSK) *Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa* azterketa argitaratu zuen. Bertan, gai horren inguruan egindako inkesta telefonikoaren emaitzak ematen ziren. Datu horietatik ingelesaren inguruko datuak aztertuko ditugu hemen, orain arte euskararen inguruan aztertutakoak testuinguruan jartzeko asmoz.

Inkesta horren arabera, EAEko herritarren %35ek ingelesez hitz egin eta idazteko gaitasuna du. Ehuneko hori igo egin da, bost puntutan 2015etik eta hirutan 2011tik.


GRAFIKOA: INGELESAREN EZAGUTZA (HITZ EGIN ETA IDATZI), EAE 2017.



Iturria: PSK (2017ko maiatza). *Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa*. Lehendakariitza, Gasteiz.

Adinaren arabera alde handiak daude ordea. Zenbat eta gazteago, orduan eta ingeles ezagutza handiagoa adierazten da. 18-29 urte artekoen artean %78k daki ingelesez, aldiz, 65 urte edo gehiago artekoetan %8k.

GRAFIKOA: INGELESAREN EZAGUTZA (HITZ EGIN ETA IDATZI) ADINAREN ARABERA, EAE 2017.




Iturria: PSK (2017ko maiatza). *Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa.* Lehendakaritza, Gasteiz.

Ingelesaren ezagutza euskararenarekin alderatzeko, inkesta horren datuak 2016ko inkesta soziolinguistikoaren datuekin erkatu ditugu. Edonola ere, datu horiek ez dira guztiz parekagarriak, bi arrazoiengatik. Batetik, neurtzeko erabilitako galderak ezberdinak dira: ingelesaren kasuan, "hitz egin eta idatzi egiten duela" adierazten du, eta elebidun kategoria osatzeko, berriz, euskara "ondo" ulertu eta hitz egiten duten pertsonak hartzen dira kontuan. Bestetik, osatutako adin tarteak ezberdinak dira. Grafikoan ingelesaren ezagutzari dagozkion adin tarteak ageri dira, parentesi artean.

Hori kontuan hartuta ere, joera bat antzematen dela esango genuke. Gaur-gaurkoz, adin tarte helduenetan, euskara ezagutza zabalagoa da ingelesarena baino: 45-50 urtetik gora gertatzen da hori. Alabaina, hortik behera, zailtasun handiagoak daude horrelako baieztapen bat egiteko. Azterketa eta datu gehiago beharko lirateke hori ikusteko.

GRAFIKOA: INGELESAREN EZAGUTZA⁵ (HITZ EGIN ETA IDATZI) ETA ELEBIDUNAK ADINAREN ARABERA, EAE 2016-2017.




Iturria: PSK (2017ko maiatza). *Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa.* Lehendakaritza, Gasteiz eta Inkesta Soziolinguistikoa 2016 Eusko Jaurlaritza.

Ingelesa hitz egiten eta idazten edo soilik hitz egiten zekitenei (%39 ingelesaren kasuan) galdetu zitzaion ea elkarriketa batean bere iritzia zehaztasunez, argudiatuz eta besteen iritziei kontra eginez adierazteko gai ziren edo ez. Gehiengoak (%56) baietz erantzun zuten. Kasu honetan, gazteenek adierazi badute ere gaitasun gehiago (%66), gainontzeko adin tarteetan ez dira aurreikusitako aldeak antzeman; are gehiago, 65 urtetik gorakoek gaitasun gehiago adierazi dute 30-45 eta 46-64 urte artekoek baino (%54 lehenengo kasuan eta %49 hurrengo bi taldeenean).

⁵ Parentesi artean ingelesaren ezagutzari dagozkion adin tarteak.

Beraz, ingelesa hitz egiten eta idazten dakitenen erdiak baino gehiagok maila altua dutela esaten dute.


GRAFIKOA: JARIOTASUNEZ HITZ EGITEKO GAITASUNA, ADINAREN ARABERA. EAE 2017



Iturria: PSK (2017ko maiatza). Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa. Lehendakaritza, Gasteiz

Ingelesaren ezagutzaren zabalpen horretan hainbat arrazoik eragin dezakete, are gehiago kontuan hartuta hizkuntza bat ikasteko motibazio ezberdinak daudela beti (prestigio kontuak, lanerako tresna izatea eta abar). Inkestan neurtutakoen artean, eskola da ingelesaren ezagutza zabaltzeko eragile nagusia orain artean: %46n da horrela. Jarraian, %32 aldiz aipatu dira irakasle partikularrak edo akademia espezializatuak eta, hirugarren, atzerrian egindako egonaldiak %18k aipatu ditu.

GRAFIKOA: ATZERRIKO HIZKUNTZAK NAGUSIKI IKASI ZITUEN MODUA. EAE 2017




Iturria: PSK (2017ko maiatza). Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa. Lehendakaritza, Gasteiz

4.5.2. INGELESEZKO ETA EUSKARAZKO C1 HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAN

Hizkuntza Eskola Ofizialetan euskarazko EGA edo C1 maila edo ingelesezko C1 maila atera nahi dutenen zati batek bakarrik egiten ditu azterketak bertan. Beste datuen faltan, Xabier Isasi legebiltzarkideak 2015ean Eusko Legebiltzarrean egindako galderari esker Cristina Uriarte Hezkuntzako sailburuak emandako datuak ditugu⁶.

GRAFIKOA: INGELESA ETA EUSKARA MATRUKULA OFIZIALA ETA LIBREA, HEO. EAE 2010/14




Iturria: Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, Gasteiz

Horietan ikus daiteke lehenik, 2010etik aurrera ingelesa ikasteko eta euskara ikasteko HEOan izena ematen dutenen kopuruen arteko aldea hazten joan direla, ingelesaren alde. Ingelesak, azken ikasturtean ezik, goranzko joera izan du, euskarak ordea, beheranzkoa. 4 urte hauetan ingelesak 3.000 ikasle irabazi ditu Hizkuntza Eskoletan eta euskarak 2.000 galdu. Ondorioz, ingelesaren alde 4.500 ikasle inguruko aldea egotetik, 9.500 egotera pasa da.


C1 mailako datuetan arreta jarriz gero, aldeak nabarmenagoak dira. Maila honetan eman diren matrikula kopuruetan euskararen kasuan bere datu orokorretan ez bezala igoera apalak izan dira. Ingelesaren kasuan ordea, igoera horiek nabarmenagoak izan dira. Epealdi honetan ingelesezko C1 matrikulak bikoitza izatera iritsi dira (3.531 eta 1.710 hurrenez hurren 2014/15 ikasturtean).

⁶ <http://www.legebiltzarra.eus/irud/10/00/032820.pdf>

GRAFIKOA: INGELESA ETA EUSKARA C1 MATRKULA OFIZIALA ETA LIBREA, HEO. EAE 2010/14

Iturria: Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, Gasteiz

Hizkuntza bat ikasteko izena ematek haratago, dagokion azterketa gainditu dutenen kopuruak ere baditugu. Ingelesaren kasuan, gora-beherekin, baina aurkezten direnen herenak inguru gainditu izan du azken lau ikasturteetan. Euskararen kasuan, antzera, baina beheranzko joera agertzen da lau urte horietan. %37,8k gainditu zuten 2010/11n, %27,4k 2013/14an, 10 puntuko aldea.


GRAFIKOA: INGELESA ETA EUSKARA AZTERKETA MAILA EZBERDINAK GAINDITUTAKOAK (%), HEO EAE 2010/14

Iturria: Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, Gasteiz

Berriro ere C1 mailan fokoa jarrita, 2011/12 ikasturtean ingelesezko froga gaitzitu zutenen proportzioa hasi zen. Urte horretako datua kenduta, euskaraz zein ingelesez, C1 azterketa gaitzitzen dutenen proportzioa parekoa da, %20 ingurukoa.

Kontuan hartuta pertsona gehiago direla ingelesezko C1 azterketa egiten dutenak euskarazkoa baino, urtero gehiago dira maila edo agiri hori ingelesean eskuratzen dutenak euskaraz baino. Horrela, azken ikasturtean proportzioa antzekoa izanik ere, ingelesezko C1 agiria 694 pertsonak eskuratu zuten eta euskarazkoa 314k. Lau ikasturte hauetako balantzea beraz, 2.409k lortu dute ingelesezko C1a eta 1.308k euskarazkoa, HEOTan.

GRAFIKOA: INGELESA ETA EUSKARA, C1 AZTERKETA GAITZITUTAKOAK (Kop. eta %), HEO EAE 2010/14



Iturria: Hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura saila, Gasteiz

5. ONDORIOAK

Legea eztabaidatu eta onartu zenean, aurkeztutako datuen arabera, atxikimendu handia zegoen eskolaren bidez umeak euskalduntzeko. Orduko ikastolen sorrerak eta matrikulazio datuen bilakaerak ere hori adierazten dute. Legeak urrats bat eman zuen aurretik ikastolek (eta eskola publiko gutxi batzuk) ireki zuten bidean, euskarazko hezkuntza eredua sistema publiko osora zabaltzeko aukera irekiz, beti ere gurasoen borondatean oinarrituta. Bide horretatik jaso zen gizartearen zegoen eskaeraren zati bat.

Urte hauetan guztietan, familien borondatean oinarrituta, joera argia izan da: pixkanaka D eredua indartuz joan da maila guztietan. Urtero D eta B ereduaren ezarpena zabaltzen joan da hasierako ikasmailetan, eta eskema hori gorantz hedatuz doa pixkanaka. X eredua gatazkarik gabe desagertu izana ere euskararen aldeko jarreraren adierazle izan daiteke.

Hala ere, hizkuntza ereduaren bilakaeran ez du soilik gurasoen borondatea eragiten. Ikasle migratuen datuak aztertuta eta hauen integrazioa helburu bat baldin bada, hauen banaketa hizkuntza eredu ezberdinetan, eta zehatzago A ereduaren duten gehiegizko presentzia, ez dirudi estrategia egoki bat. D eredua indartsuagoa den lekuan (ikasmaila batzuetan praktikan ia bakarra, Gipuzkoan) ikasle migratuak ere bertara joaten dira, integrazioa erraztuz. Kontrakoa, A eredua oraindik esanguratsua den lekuan (Arabian) ikasle migratuak bertara bideratzen dira edo dituztela ematen du, bereziki adinean gora egin ahala. Bizkaian erdibideko zerbait gertatzen da.

Urte hauetan guztietan oraindik lortu ez dena zera da: euskaraz ikasteko eskaerari eskaintza nahikoa ematea. Hori nabarmena da Lanbide Heziketetan. Are gutxiago Euskararen legeak bigarren kapituluko 17. artikuluan dioena: "*Jaurlaritzak, **derrigorrezko ikastaldia bukatzerakoan ikasleek, aukera berdinetan, bi hizkuntza ofizialak benetan erabiltzeko adina menperatuko dituztela** ziurtatzera bideratutako neurri guztiak hartuko ditu*".

Guztira, 1978-2001 bitartean jaioak kontuan izanik, hau da, hizkuntza-ereduen sistema martxan jarri zenetik derrigorrezko hezkuntza osoa sistema horretan egin dutenak, 206.263 pertsona lirake egun euskaldundu gabe aterak direnak. Eskolan euskaldunduak 157.170 eta beste 45.598 etxean edo/eta eskolan euskaldundu direnak (lehen hizkuntza euskara eta erdara izan dutenak eta elebidun direnak egun). Azkenik etxean euskaldundu direnak 82.343 ikasle dira. Beraz, euskaldundu ez diren gazteak milaka izateaz gain, gehiago dira euskaldundu gabeko gazteak euskaldundu direnak baino.

Ereduak gorabehera, 2005ean egindako ikerketaren arabera EAEn ikasten duten bi ikasletik batek ez du lortzen euskara ondo jakitea (B2 gutxienez) beren derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan; hau da, 2016ra ekarrita, 4.DBH ikasleetatik 8.727 ikasle ez lukete behar bezalako euskara maila eskuratuko. Azken 15 urteetan derrigorrezko ikasketak amaitu dituztenen artean, 144.161 ikasle lirake B2 maila eskuratu ez dutenak (%57) eta 108.713 ikasle B2 maila edo altuagoa eskuratuko luketenak (%43).

Gerraondoko eskolaren eta euskararen arteko harreman eta zerikusiak hiru epealditan ezberdindu ditugu lan honetan: gerra amaitu eta lehenengo ikastoletaraino doana (1937-1960), ikastolaren garapen-urteak (1961-1975), eta euskara ofizialki irakas-sistema osora eraman nahi den hirugarren epealdia. Hirugarren epealdi hau, datuen bilakaera aztertuta, bitan bana daiteke: ezarpena eta kontsolidazioa batetik, eta geldialdia bestetik.

Azken fase horretan, geldialdia (edo atzerakada) antzematen da bai euskalduntzean eta baita lortutako euskara mailan ere. Ikusi den bezala, nahiz eta D eredu gorantz doan eta A ereduak jaitziera nabarmena izan, 2011ko zentsuaren datuetan eta 2016ko inkesta soziolinguistikoan euskalduntzearen geldialdi edo atzerakada bat antzeman daiteke belaunaldi gazteetan, derrigorrezko eskolaratzearen ondoren.

Baina hori ez da adierazle bakarra. ISEI-IVEIren 2015eko Ebaluazio Diagnostikoaren bilakaera aztertuta ere, euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian atzerakada ikusten da DBH4ko ikasleen artean.

Azken ikasturtean, 16-40 urte arteko euskaltegietako euskara ikasleak C1 azpiko mailetan 11.000 ikasletik gora dira.

Euskara eta ingelesaren C1 maila eskuratzeko HEOan dauden matrikulazioak eta gainditze tasak aztertuta, bi ondorio ateratzen ditugu: bata, ingelesaren C1 agiria ateratzeko eskaera edota presio sozial handiagoa dagoela euskararena baino. Bigarrena, agiria eskuratzeko zailtasuna maila bera du, hau da, euskal herritarrek arrakasta tasa berdina dute euskaraz zein ingelesez azterketa horiek aurre egiteko momentuan.

Euskalduntze prozesuan hezkuntzak izan duen esku-hartzea eta bere garrantzia askotan azpimarratu da. Baieztapen horri garrantzia kendu gabe, beti egongo da eztabaida izan denaren eta izan zitekeenaren artean. Horixe baita izan zitekeena: ahalera. Edozein kasutan, ikusita zer-nolako zabalpena ari den lortzen ingelese gurean, eta zer-nolako abiaduran uste dugu erlatibizatu egin behar ditugula euskalduntzearen bilakaerari buruzko datuen balorazio positiboak (positiboegiak). Hau da, lan asko eta handia egin da, baina datuak ez dira autokonplazentzian erortzeko modukoak. Izan ere, gaur-gaurkoz, adin tarte nagusienetan, euskara ezagutza zabalagoa da ingelesarena baino: 45-50 urtetik gora gertatzen da hori. Hortik behera, ordea, horrelako baieztapen bat egiteko zailtasun handiagoak daude. Azterketa eta datu gehiago beharko lirateke hori ikusteko.

6. BIBLIOGRAFIA

- Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Hizkuntza Eskola Ofizialeko erabiltzaile gaitua (C1) titulazioei buruz <http://www.legebiltzarra.eus/irud/10/00/032820.pdf>
- Basurco, Félix (1989): «La normalización de las ikastolas: breve historia y estado de la cuestión de la escuela pública vasca», *Historia de la Educación. Revista Interuniversitaria*, 8 zkia, 139-165 or.
- Etxeberria Balerdi, Felix (2003): 40 años de educación bilingüe en el país del euskara. *Revista de Educación*, 334 zkia. (2004), 281-313 or.
- EUSTAT, Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak, 1981-2011.
- EUSKO JAURLARITZA, Inkesta Soziolinguistikoak, 1991-2016.
- Goikoetxea, Garikoitz. Berria.
 - (2014ko urriak 20) Berria. "Euskararen eskailerak".
https://www.berria.eus/albisteak/96862/euskararen_eskailerak.htm
 - (2015eko urriak 4) "URRUNEKO TITULUA GEHIENEN MAILARAKO"
https://www.berria.eus/paperekoa/1958/002/001/2015-10-04/urruneko_titulua_gehienen_mailarako.htm
- ISEI-IVEI (2005): Euskararen B2 maila. Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH4). Eusko Jaurlaritza. Gasteiz
- ISEI-IVEI (2015): Ebaluazio diagnostikoa. Txosten exekutiboa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. Maila, 2015. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz
- PSK (2017ko maiatza). Atzerriko hizkuntzen ezagupena eta ikasketa. Lehendakaritza, Gasteiz.
- SIADECO-EUSKALTZAINDIA (1979): Hizkuntza borroka Euskal Herrian. Bilbo: Euskaltzaindia.
- SIADECO (1980). Estudio Socio-lingüístico del euskera. VII: Las Ikastolas.
- Zalbide, Mikel (2010): Euskararen legeak hogeita bost urte. Eskola alorreko bilakaera: balioespen-saioa. Bilbo: Euskaltzaindia.

AZTIKER KOOP. ELK. TXIKIA

Martin Ugalde Kultur Parkea

Gudarien etorbidea z/g

20140 Andoain (Gipuzkoa)

943593006

www.aztiker.eus – idazkaritza@aztiker.eus